Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **KONTRATU MOTA:** | **ZERBITZU EMAKIDA** | | | |
| **PROZEDURA:** | **IREKIA** | | | |
| **ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA** **[*Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 19.2 g)** | | **BAI** | ☐ **EZ** | ☒ |
| **ERREKURTSO BEREZIAREN MENDEKO KONTRATUA** | | **BAI** | ☐ **EZ** | ☒ |
| **LIZITAZIO ELEKTRONIKOA** | | | | |

**Izapidetzea** ☒ **Ohikoa** ☐ **Premiazkoa**

**Izapidetze aurreratua** ☐

**Espediente kodea:**
**GPS2026/02**

# ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN BALDINTZA AGIRIA

## EZAUGARRIEN TAULA

| **1.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA** | |
|---|---|
| Entitate kontratatzailea | Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioa (GPS Fundazioa) |
| Kontratazio organoa | GPS fundazioaren Patronatua |
| Helbidea | Ibaiondo poligonoa, 27, 1., 1-5 bulegoa.<br>20120 HERNANI |
| Helbide elektronikoa | lzaldua@gipuzkoa.eus (Gerentea) |

| | |
|---|---|
| **2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA** | www.contratacion.euskadi.eus |

| **3.- KONTRATUAREN XEDEA** |
|---|
| Kontratuaren xedea da Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Arantzazuko aterpetxea (arreta) erabiltzeko eta kudeatzeko zerbitzua ematea, Oñatiko udal-mugartean (Gipuzkoa). Aterpetxea Aizkorri-Aratz natura-parkean (Oñatin) den Arantzazu auzoko Gandiaga I eraikinean dago. |
| CPV kodea(k): 80540000-1 Ingurumen arloko prestakuntza zerbitzuak.<br>55100000-1 ostalaritza zerbitzuak |
| Lizitazioa sortaka BAI ☐ EZ ☒ |

| 4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (BEZ-A BARNE) | |
|---|---|
| Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua | Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 0 da. Zerbitzuen emakida da, kanonik eta ordainketarik gabe, inongo helbidetan.<br>Hau da, emakidadunak hartuko du bere gain eragiketa-arriskua, eta haren diru-sarrerak aterpetxeko erabiltzaileenak baino ez dira. |

| 5.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZ-A KANPO) |
|---|
| **Kontratuaren balio zenbatetsia**, luzapenak barne, **658.654,25 €**koa da (SKPLren 101. art). Kontuan hartu da bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlanean aurreikusitako negozio-zifraren zenbatekoa, bai eta urtebeteko luzapena egiteko aukera ere, hasierako aldiko azken urteko negozio-zifra berarekin. |

| 6.- FINANTZAKETA | Ehunekoa |
|---|---|
| GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOA | 100% |

| 7.- URTEROKOAK |
|---|
| Ez dagokio. |

| 8.- INDARRALDIA |
|---|
| Epea guztira: Kontratuak hiru urteko iraupena izango du.<br>Epe partzialak BAI ☐ EZ ☒ |
| |

| 9.- LUZAPENA |
|---|
| BAI ☒ Urte bateko luzapen bat.<br>EZ ☐ |

| 10.- ORDAINTZEKO MODUA |
|---|
| Ez dagokio. |

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

| 11.- GAUZATZEKO TOKIA |
|---|
| Oñatiko udal-mugartean (Gipuzkoa). Aterpetxea Aizkorri-Aratz natura-parkean (Oñatin) den Arantzazu auzoko Gandiaga I eraikinean dago. |

| 12.- ALDAERAK ONARTZEA |
|---|
| BAI [ ] Eskakizunak, modalitateak, alderdiak:<br>EZ [X] |

| 13.- PREZIOEN BERRIKUSPENA |
|---|
| BAI [ ]<br>EZ [X] |
| |

**14.- ENPRESA EDO LANBIDE BAIMENAK/GAIKUNTZAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA TEKNIKOA EDO PROFESIONALA**

**1) ENPRESA EDO LANBIDE BAIMENAK/GAIKUNTZAK**
**(Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 65. artikulua)**

Badagokio BAI [ ] EZ [X]

**2) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA**

Irizpidea: itxitako azken hiru urteetako negozio zifren artean altuena den urteko negozio zifra.

Gutxieneko betebeharra: itxitako azken 3 urteetako negozio zifren artean altuena den urteko negozio zifrak, gutxienez, **6.000 euro** edo gehiago izan behar du.

Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Kontuak erregistro ofizialetan aurkeztera behartuta ez dauden enpresariek legezko kontabilitate liburuak aurkez ditzakete, ordezko egiaztapen gisa.

Enpresa sortu berrien kasuan (bost urtetik beherako antzinatasuna duten enpresen kasuan), kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatzeko, arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguru bat dutela egiaztatu beharko dute. Aseguru hori **600.000 eurokoa** edo gehiagokoa izango da, eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte egongo da indarrean. Horrez gain, berritzeko edo luzatzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko dute, kontratua gauzatzen den bitartean estaldurari eutsiko diotela bermatzeko. Baldintza hori betetzat joko du lizitatzaileak, baldin eta eskatutako asegurua harpidetzeko konpromiso loteslea hartzen badu,

adjudikaziodun suertatuz gero, eta dokumentazioa aurkezteko epearen barruan gauzatu beharko da.

### 3) KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

Kaudimen teknikoa egiaztatutzat joko da lizitatzaileak gutxienez honako giza baliabide hauek badauzka, zerbitzua ematera bideratuko dituenak kontratuak irauten duen bitartean:

Lanaren esleipendunak planteatutako lanak lortzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak aurkeztu beharko ditu, eta gutxienez honako hauek esleitu beharko dizkio kontratua gauzatzeari:
• Sukaldari bat.
• Aterpetxea zaintzeko beste pertsona bat (*)

DBHko Eskola Graduatu edo Graduatu titulua izan beharko dute, eta hiru urteko esperientzia kontratuan eskatzen diren lan berdinetan edo antzekoetan. Bietako batek esleipendunak proposatutako gainerako lantaldea zuzenduko du, eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazitako funtzioak beteko ditu (3. puntua eta bat datozenak).

Sukaldari-lanak egiten dituen pertsonak elikagaiak manipulatzeko txartela izan beharko du.

(*) Kontratua betetzeko eskatzen diren gutxieneko bi langileetako bat, hain zuzen ere parketxea artatzeaz arduratzen dena, lan-subrogazioa bete beharrari lotuta dago, baldin eta eskubide horretaz baliatu nahi badu. (Ikusi Administrazio Klausula Partikularren Agiriko ezaugarri-taulako 25. Klausula).

Giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa Administrazio Klausula Berezien Agiriko **IV. eranskinean** jasotako adierazpena **BAT zenbakidun artxibo elektronikoan** aurkeztuz beteko da. Artxibo horretan **EZIN izango dira identifikatu langile horiek**, (HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa identifikatuko dira).

Lanak gauzatzeko kontratua formalizatu ondoren sartuko den giza taldean nahitaez agertu beharko da proposatutako pertsona giza baliabideen atxikipenean.

SPKLren 150.2 artikuluan adierazitako ondorioetarako, kontratuaren esleipendun izateko proposamena egiten zaion erakundeak kontratua gauzatzeko hitzemandako bitartekoak benetan dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, esleipena egin aurreko fasean.

Lizitatzaile irabazleak, esleipena baino lehen, IV. eranskinean adierazitako dokumentazioa aurkeztuko du, jendearentzako arreta-zerbitzuari atxikitako langileek bi hizkuntza ofizialetan komunikazio erraza bermatuko dutela egiaztatzeko.

Gaitasun hori honako hauen bidez egiaztatuko da:

- Titulazioa (gutxienez HE1 hizkuntza-eskakizuna).
- Enpresaren erantzukizunpeko adierazpena. Fundazioak baliozkotze-elkarrizketa bat egin beharko du, aterpetxearen erabiltzaileari arreta emateko kasu praktikoetan oinarrituta.

- Esperientziaren ziurtagiria: Ingurune elebidunetan jendeari arreta emateko gutxienez 12 hilabetez lan egin izana frogatzea.

**4) SAILKAPENA**

Lizitatzaileak sailkapenaren arabera ere egiaztatu ahal izango du kaudimena:

BAI ☐ EZ ☒

**5) INGURUMEN KUDEAKETAKO ETA KALITATE BERMEKO ARAUAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEA**

BAI ☐ EZ ☒

**15.- BALIABIDEAK NAHITAEZ JARTZEKO KONPROMISOA**

BAI ☒ EZ ☐

Erantzuna baiezkoa bada:

- Enpresa lizitatzaileak konpromisoa hartzen du kontratuaren indarraldi osoan ezaugarrien taulako (gutxieneko talde teknikoa) 14.3 atalean xedatutakoaren arabera izendatutako talde teknikoari eusteko, eta ezingo da aldaketarik egin, behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoiengatik izan ezik. Aldaketa horiek egin aurretik, erakunde kontratatzailearen baimena beharko da.

- Baliabideak atxikitzeko konpromisoa betetzeko, administrazio-klausula zehatzen agiriko IV. eranskinean jasotako aitorpena aurkeztu beharko da BAT artxibo elektronikoan. **Artxibo horretan ezin izango dira identifikatu langile horiek, eta langile horien identifikazioa IX. eranskinean egin beharko da (HIRU artxibo elektronikoa).**

- SPKLren 150.2 artikuluan adierazitako ondorioetarako, kontratuaren adjudikaziodun izateko proposatzen den erakundeak kontratua gauzatzeko hitzemandako baliabideak benetan dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, esleipenaren aurreko fasean.

**16.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAZ ARDURATZEA**

BAI ☒ EZ ☐

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

Esleipendunak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, Aterpetxearen erabiltzaileen datu pertsonalen (identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak) tratamendua egingo du.

| **17.- AZPIKONTRATATZEA** | | |
|---|---|---|
| Europako Kontratazio Agiri Bakarrean nahitaez adierazi behar da: | | |
| a) Azpikontratatzea aurreikusten den kontratuaren zatia, horren zenbatekoa eta azpikontratatzaileen izena edo enpresari profila. | BAI ☐ | EZ ☒ |
| b) Zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko aurreikuspena, izena edo enpresari profila adierazita (*datu pertsonalen tratamenduaz arduratu behar den kasuetan*) | BAI ☐ | N/A ☒ |
| Zuzeneko ordainketak azpikontratatzaileei | BAI ☐ | EZ ☒ |

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 296. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, azpikontratazioa salbuespenezkoa izango da, eta prestazio osagarrien gainekoa baino ezingo da izan. Orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio kasu zehatz bakoitzean azpikontratazioa onestea.

Nolanahi ere, emakidaduna izango da kontratua behar bezala betetzearen erantzule bakarra Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean.

| **18.- BERMEAK** | | |
|---|---|---|
| BEHIN-BEHINEKOA | BAI ☐ | |
| | EZ ☒ | |
| BEHIN BETIKOA | BAI ☒ | ☒ Kopurua: 3.000€ |
| | | ☐ |
| | EZ ☐ | |
| OSAGARRIA | BAI ☐ | |
| | EZ ☒ | |

| | |
|---|---|
| BERMEALDIA | 2 Hilabete |

**19.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK**

**1) BALIO JUDIZIO BIDEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK (gehienez 30 puntu)**

BAI [X] EZ [ ]

Lizitatzaileak merkataritza-, komunikazio- eta marketin-proposamen bat aurkeztu beharko du, landa-aterpetxearen urteko okupazioa eta ostatu-gauen kopurua handitzera bideratua, haren ezaugarri bereizgarriak eta ingurunearekiko integrazioa balioetsiz.

Proposamenak koherenteak, errealistak eta landa-ingurunera egokituak izan beharko dute, baita aterpetxearen erabiltzaile potentzialen profilera ere (turismo aktiboa, familiakoa, eskolakoa, taldeak, mendi-ibiliak, zikloturistak, etab.).

Balorazioan kontuan hartuko dira, besteak beste, ikuspegi estrategikoaren koherentzia eta argitasuna, estrategia aterpetxearen urtarokotasunera eta landa-ingurunera egokitzea, helburu eta merkatuko publikoak identifikatzea, balio erantsia, planteatutako ekintzen errealismoa eta aterpetxeko baliabideetara egokitzea, etab.

Puntuazioa honako alderdi hauek kontuan hartuta emango da, besteak beste:

• Merkaturatzeko eta komunikatzeko estrategia orokorra (6 puntu, gehienez)

• Marketin digitalerako eta sare sozialetarako proposamena (gehienez 6 puntu)

• Sustapen- eta komunikazio-ekintzak (gehienez 6 puntu)

• Gaualdiak gehitzeko proposamen berritzaileak (6 puntura arte)

• Proposamenaren bideragarritasuna eta zehaztasuna (gehienez 6 puntu)

Balorazio judizio bidez balioesteko irizpideen atala gainditzeko, lizitatzaileek gutxienez 15 puntu lortu beharko dituzte. Lizitaziotik baztertuko dira gutxieneko puntuak lortzen ez dituzten lizitatzaileak.

**Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BAT edo BI zenbakiko artxibo elektronikoetan formulak aplikatuz ebaluatu beharreko dokumentazioa sartzen dutenak (HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa), baldin eta, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta eta proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta, mahaiak uste badu organo teknikoen nahitaezko inpartzialtasunari eta objektibotasunari eta tratu-berdintasunaren printzipioari eragiten dien kutsadura gerta daitekeela.**

**ARTXIBOETAN IRIZPIDE AUTOMATIKOEI BURUZKO DATURIK, INFORMAZIORIK EDO DOKUMENTAZIORIK EZ SARTZEA, AURRETIKO BETEKIZUNEI ETA BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI DAGOKIENEZ.**

**AURKEZTEN DIREN TESTU IDATZIETAN DERRIGORREAN BETETZEKO IRIZPIDEAK (GRAFIKOAK, ARGAZKIAK, DIAGRAMAK ETA ABAR ALDE BATERA UTZITA).**
Irizpide hauei dagokionez, aurkezten diren testu idatzi guztien idazkerak ondoko parametroak bete beharko dituzte:

- Dokumentazioaren gehienezko luzera (azalak edo aurkibideak kontatu gabe): 10 orrialde.
- Letra mota eta neurria: Arial 10

**2) FORMULAK APLIKATUZ BALORATZEN DIREN IRIZPIDEAK (gehienez 70 puntu)**

| Irizpidea | Haztapena |
|---|---|
| **Egutegia** | 50 |
| **Berdintasun irizpidea** | 10 |
| **Ingurumen irizpidea** | 10 |

**2.1Jendearen arretarako egutegia: (50 puntu)**

Urteko egutegia: 10 puntu.

Enpresa lizitatzaileak jendeari arreta emateko egiten duen proposamena baloratuko da, e Baldintza Teknikoen Agirian adierazitako irekitzeko gutxieneko hilabeteen egutegiaren hobeku da kontuan. Urtean 9 hilabete izango dira eskatzen den gutxienekoa:

- 10 hilabete: 3,33 puntu.
- 11 hilabete: 6,66 puntu.
- 12 hilabete: 10 puntu.

Asteko egutegia: 40 puntu.

Enpresa lizitatzaileak jendeari arreta emateko egiten duen proposamena baloratuko da, e Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako irekiera-egunen gutxieneko egutegiaren hobekuntza kontuan, asteazkenetik igandera eskatzen den gutxienekoa izanik.

- Asteartetik igandera: 20 puntu.
- Astelehenetik igandera: 40 puntu.

**2.2 Berdintasun irizpidea (10 puntu)**

10 puntu emango dira lan-subrogazioaren mende ez dagoen giza baliabideen atxikipenean pr pertsona (sukaldaria) emakumea bada.

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

**2.3 Ingurumen-irizpideak (10 puntu)**

Zerbitzua gauzatzean hartuko diren ingurumen arloko neurriak adieraziko dira, urriaren 29ko 11/2014 Foru Arau Organikoaren 19. artikuluan aurreikusitakoen artetik. Horren arabera, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak txertatuko dira, eta gehienez 10 puntu emango dira.

Bereziki, honako neurri hauek jasotzen dituen konpromisoa ematen badute:

a) Komuneko papera klororik gabe (TCF) erostea (2 puntu).
b) Kafea nekazaritza ekologikotik etorriko da, 834/2007 (EE) Erregelamenduaren edo ondorengo bertsioen arabera (4 puntu).
**c)** Erabilitako baxera, beirateria eta mahai-tresnak berrerabilgarriak izango dira (4 puntu).

**20.- EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK**

Ikus agiri honen 38-2. klausula.

**21.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK**

SPKLn eta agiri honen klausuletan aurreikusitakoez gain, funtsezko betebeharrak izango dira giza baliabideak atxikitzeko betebeharra, ezaugarrien taula honen 15. apartatuan aurreikusia.

**22.- AURREIKUSITAKO KONTRATU ALDAKETAK**

BAI [ ] EZ [X]

**23.- ZEHAPENAK**

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta baldintza-agiri honen 48. klausulan aurreikusitakoak.

**24.- ASEGURUAK**

Erantzukizun zibileko asegurua, gutxienez 600.000 eurokoa.

**25.- SUBROGAZIOA ZENBAIT LAN HARREMANETAN**

BAI [X] EZ [ ]

SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, zerrenda eransten da honako hauekin: Zerbitzuan enplegatutako pertsonen kopurua, hitzarmen kolektibo aplikagarria, lan kategoria, kontratu mota, lanaldia, antzinatasuna eta langile bakoitzaren urteko soldata gordina.

Zerrenda honetan jasotako informazioa zerbitzua ematen duten enpresek prestatu eta eman dute.

**1 langilea**

Enpresa: Suspertu S.L.
Lan hitzarmena: Gipuzkoako Ostatu Etxeak
Kategoria: II maila (gobernanta)
Kontratu mota: Mugagabea
Dedikazioa: %100 (urtean 1719 ordu)
Antzinatasun data: 2022 apirilak 1
Urteko soldata gordina: 31.482,08€

**26.- LIZITATZAILEEI KONPENTSATZEKO ZENBATEKOA**

Ez dagokio.

**27.- KONTURAKO ORDAINKETAK, PRESTAKETA ERAGIKETENGATIK**

BAI ☐ EZ ☒

**28.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK**

**29.- KONTRATAZIO MAHAIA**

MAHAIBURUA: Luis Mari Zaldua Etxabe, GPS Fundazioko gerentea,
BOKALA: Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaileta eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria.
BOKALA: Nerea Garrido Leunda, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Administrazio Orokorreko teknikaria.
BOKALA: Iker Latiegui Lasa, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Administrazio Orokorreko erdi teknikaria.
IDAZKARIA: Mikel Albizu Huegun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Administrazio Orokorreko teknikaria.

| 30.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA |
| --- |
| Proposamenak aurkezteko epea 30 egun natural izango da, lizitazio iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. |

| 31.- INFORMAZIO GEHIGARRIA EMATEKO EPEA |
| --- |
| |

*Baldintza Administratibo Berezien Agiri hau Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Patronatuak onetsi ditu 2026ko maiatzaren 8ko akordio bidez.*

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

**AURKIBIDEA**


**I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK ..... 1**

1.- Kontratuaren xedea ..... 1

2.- Kontratuaren bidez estali beharreko administrazio beharrak ..... 1

3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ..... 1

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia ..... 1

5.- Kontratuaren prezioa ..... 1

6.- Kreditua izatea ..... 2

7.- Zerbitzuak emateko eta emakida abian jartzeko epea eta lekua ..... 2

8.- Prezioak berrikustea ..... 2

9.- Kontratuaren publizitatea ..... 2

10.- Zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hizkuntza berdintasuna, enpleguaren babesa, lan baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa, eta datuen babesa hizpide dituen informazioa ..... 3

11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren prerrogatibak ..... 3

12.- Errekurtsoen araubidea ..... 4

**II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA ..... 6**

13.- Espediente mota eta lizitazio modua ..... 6

14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak ..... 6

15.- Behin-behineko bermea ..... 6

16.- Proposamenak aurkeztea ..... 7

17.- Lizitatzaileei informazioa ematea ..... 7

18.- Proposamenen edukia ..... 7

19.- LEHENBIZIKO artxibo elektronikoa: “AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK” ..... 7

20.- BIGARREN artxibo elektronikoa: “BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” ..... 9

21.- HIRUGARREN artxibo elektronikoa: “ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ EBALUA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA” ..... 9

22.- Aldaeren onargarritasuna ..... 10

23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak ..... 10

24.- Kontratazio mahaia ..... 11

25.- Proposamenak irekitzea eta aztertzea ..... 11

25.1.- LEHENBIZIKO artxibo elektronikoak irekitzea eta administrazio dokumentazioa kalifikatzea ..... 11

25.2.- BIGARREN artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (BIGARREN artxibo elektronikoa den kasuetan bakarrik) ..... 11

25.3.- HIRUGARREN artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea ..... 12

25.4.- Kontratazio mahaiaren aktak ..... 12

26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitzen publizitatea eta ukituriko lizitatzaileei jakinaraztea ..... 12

27.- Adjudikazio irizpideak ..... 12

28.- Eskaintzak ebaluatzea ..... 13

29.- Eskaintzak argitzea ... 13
30.- Balio anormalki baxuak dituzten eskaintzak ... 13
31.- Prozedurako ondorengotza ... 13
32.- Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio prozeduran atzera egitea. ... 14
33.- Adjudikazioa ... 14
33.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjukazio proposamena ... 14
33.2.- Kalitate-prezio erlaziorik oneneko eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aldez aurreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea ... 14
33.3.- Behin betiko bermea ... 18
33.4.- Adjudikazioa ... 18
34.- Kontratua formalizatzea ... 19
**III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA ... 21**
35.- Kontratuaren arduraduna ... 21
36.- Emakidadunaren pertsona ondorengotza ... 21
37.- Kontratua lagatzea ... 22
38.- Enpresa emakidadunaren baldintzak eta betebeharrak ... 22
38.1.- Baldintza orokorrak ... 22
38.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ... 23
38.2.1.- Lan arloarekin, gizarte alorrarekin eta ingurumena babestearekin loturiko betebeharrak ... 24
38.2.2.- Kontratua gauzatu behar duten langileen betebeharrak ... 25
38.2.3.- Subrogazio kasuetako betebeharrak ... 25
38.2.4.- Gauzatzeko hizkuntza betebeharrak ... 26
38.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko obligazioak ... 26
38.2.6.- Azpikontratazio kasuetako betebeharrak ... 27
38.2.7.- Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko betebeharrak ... 28
38.2.8.- Enpresa emakidaduneko langileekiko betebeharrak ... 30
38.3.- Informazioaren segurtasunaren arloko betebeharrak ... 31
38.4.-Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta erakunde zuzentasunaren esparrua betetzeari buruzko obligazioak ... 32
38.5.-Baimenak eta lizentziak kudeatzeko betebeharrak ... 33
38.6.- Emakidadunari dagozkion betebeharrak ... 33
38.7.- Emakidadunari eska dakizkiokeen gastuak ... 33
38.8.- Lan programa ... 33
38.9.- Kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko baldintzak ... 33
39.- Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzuak emateko kontratuei buruzko berezitasunak ... 34
40.- Jabetza intelektualaren eskubideak ... 34
41.- Kontratua aldatzea ... 34
41.1.- Aurreikusitako aldaketak ... 35
41.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak ... 35
41.3.- Kontratuaren oreka ekonomikoari eustea ... 35
41.4.- Aldaketa araubidea ... 35
42.- Emakidadunari egin beharreko ordainketak ... 35
43.- Emakida bahitzea edo emakidan esku hartzea ... 36

44.- Kontratuan atzera egitea ..... 37
45.- Harrera eta bermealdia ..... 37
45.1.- Harrera eta likidazioa ..... 37
45.2.- Bermealdia ..... 37
45.3.- Bermea itzultzea. ..... 38
46.- Kontratua suntsiaraztea ..... 38
47.- Zerbitzua itzultzea ..... 39
48.- Zehapen araubidea ..... 39
**I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK ..... 41**
**I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.-JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK ..... 42**
**II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) BETETZEKO JARRAIBIDEAK ..... 44**
**III. ERANSKINA.- PERTSONA JURIDIKO BAKARRA ERATZEKO KONPROMISO EREDUA, ZENBAIT ENPRESAK PROPOSAMENA ELKARREKIN EGINZ GERO ..... 46**
**IV. ERANSKINA- BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA ADIERAZTEKO EREDUA ..... 48**
**V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA ..... 49**
**VI. ERANSKINA.- KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA ERAKUNDE ZUZENTASUNAREN ESPARRUA BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO EREDUA ..... 50**
**VI. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTZEN DIREN DOKUMENTU ETA DATUEN AITORPEN OSAGARRIAREN EREDUA ..... 51**
**VIII. ERANSKINA. - ABAL EREDUA ..... 52**
**IX. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ETA FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUEN EREDUA ..... 53**
**X. ERANSKINA.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK ETA IZAERA SOZIALEKO EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK EBALUATZEKO SISTEMAREN PROPOSAMENA ..... 55**
**XI. ERANSKINA.- EZ-BETETZEENGATIKO ZEHAPEN ARAUBIDEA .....** ¡Error! Marcador no definido.

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

# I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

## 1.- Kontratuaren xedea

1.- Kontratuaren xedea da baldintza agiri honen ezaugarri taularen **3. atalean** deskribatutako zerbitzuak emateko emakida gauzatzea, kontuan hartuta, kasuak hala eskatzen badu, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako kasuen arabera izapidetu daitezkeen aldaketak (lege horren bidez Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak).

Atal horretan hala ezartzen denean, sortaka egingo da lizitazioa, bertan deskribatzen diren termino eta mugei jarraituz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 99. artikuluaren arabera. Baldintza agiri honetan kontratuari edo enpresa adjudikaziodunari egiten zaizkion aipamen guztiak kontratuaren xedea banaturik dagoen sorta bakoitzari egiten zaizkiola ulertuko da.

2.- Kontratuen Hiztegi Komunaren (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa ezaugarrien taulako **3. atalean** agertzen da.

## 2.- Kontratuaren bidez estali beharreko administrazio beharrak

Kontratu honen bidez, preskripzio teknikoen baldintza agirian deskribatutako beharrizanak beteko dira, han deskribatutako zerbitzuak emanda.

## 3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 100.2 artikuluaren arabera kalkulatua da, eta ezaugarrien taulako **4. atalean** adierazitakoa izango da gehienez, balio erantsiaren gaineko zerga barne.

## 4.- Kontratuaren balio zenbatetsia

1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 101. artikuluaren arabera kalkulatua eta ezaugarrien taulako **5. atalean** jasoa, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikagarri zaion adjudikazio prozedura eta aplikatu beharreko publikotasuna aukeratzeko, bai pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean lizitatzaileak) gaitasun baldintzak eta aplikatu beharreko baliabideen araubidea ezartzeko. Balio zenbatetsi horrek barnean hartuko ditu, hala aurreikusten bada, ezaugarrien taulako **22. atalean** adierazitako goranzko kontratu aldaketa posibleak.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 101.5 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **5. atalean** adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabilitako metodoa.

## 5.- Kontratuaren prezioa

1.- Kontratuaren prezioa kontratuaren adjudikaziotik ateratzen dena izango da, eta partida independente gisa adieraziko du BEZa. Kontratuaren prezioan sartzen dira aplikatzekoak diren tributuak, tasak eta edozein motatako kanonak, bai eta baldintza agirian jasotako eginbeharrak betetzearen ondorioz adjudikaziodunarentzat sortzen diren gastu guztiak ere.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 102.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **4. atalean** adierazten da prezioa zehazteko erabilitako sistema

3.- Prezioa oroharreko prezioan zehazten den kontratuetan, enpresa adjudikaziodunak eskainitakoa izango da kontratuaren prezioa, eta ezingo du inola ere gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

4.- Prezioa prestazio osagaiei edo unitateei dagozkien unitateko prezioen bidez zehazten den kontratuetan:

a) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez definitzen denean: prezioa lortzeko adjudikaziodunak eskainitako unitateko prezioa unitate kopuruarekin biderkatuko da.

b) Xedea osatzen duten unitateen kopurua ez denean zehaztasunez definitzen:

1) Adjudikaziodunak eskainitakoa izango da unitate bakoitzaren prezioa.

2) Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da, baina aurrekontu horren benetako gastua Administrazioaren egiazko premiek baldintzatzen dute, eta ez dago behartuta unitate kopuru jakin bat eskatzera, ezta osorik gastatzera ere.

5.- Ezaugarrien taulako **4. atalean** hala adierazten bada, ontzat emango dira eskaintza ekonomikoak, baldin eta prezio unitario partzialak jasotzen badituzte, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan agertzen direnekiko gehikuntza portzentaje batekin, baina ateratzen den gehieneko prezioak ezin izango du gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa.

## 6.- Kreditua izatea

1.- Bada behar beste kreditu egin beharreko kontratuaren gastuari aurre egiteko. Kontratua aurrekontuko partiden kargura finantzatuko da, eta ezaugarrien taulako **7. atalean** ezarritako urterokoen arabera.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 117.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta ezaugarrien taulan jasotakoarekin bat etorriz, espedientea aldez aurretik izapidetzen bada, kontratua adjudikatzeko baldintza izango da behar beste kreditu egoki izatea dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak bermatzeko; hala izan ezean, eten egin ahalko da.

## 7.- Zerbitzuak emateko eta emakida abian jartzeko epea eta lekua

1.- Egikaritzeko epea ezaugarrien taulako **8. atalean** ezarritakoa izango da, edo enpresa adjudikaziodunak eskaintzen duena, lizitatzaileek epe osoa edota epe partzialak murriztea proposa badezakete.

2.- Kontratua luzatu ahal izango da ezaugarrien taulako **9. atalean** hala aurreikusten bada, eta emakidadunak nahitaez luzatu beharko du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan aurreikusitako moduan.

3.- Zerbitzuak leku jakin batean eman behar badira, ezaugarrien taulako **11. atalean** adieraziko da.

4.- Enpresa adjudikaziodunak hasieratik kudeatuko ditu emakidaren linea guztiak. Une horretan, emakida berria arautzen duten administrazio klausulen eta preskripzio teknikoen baldintza agiri hauetan ezarritakoari jarraikiz, eginda egon beharko dute iraungitako emakidaren eremuan enpresa adjudikaziodun berriak zerbitzua emango duela bermatzeko jarduketak, eta, zehazki, lan subrogazioari eta material mugikorrari dagozkionak.

## 8.- Prezioak berrikustea

1.- Berrikuspena egin behar bada, ezaugarrien koadroaren **13. atalean** adieraziko da, eta han jasoko da aplikatzekoa den formula.

2.- Prezioak Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako moduan berrikusiko dira (103. artikulua eta hurrengoak).

## 9.- Kontratuaren publizitatea

1.- Kontratua adjudikatzeko lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

2.- Kontratatzailearen profilean, kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa emango da, barnean harturik administrazio klausula partikularren baldintza agiria eta, kasuak hala eskatzen badu, dokumentazio osagarria.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 63. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratatzailearen profilean argitaratuko den kontratu honi buruzko informazioa ezaugarrien taulako **2. atalean** adierazten den helbide elektronikoan kontsultatu ahal izango da.

4.- Erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan, lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 135. artikuluak zehazten duenari jarraikiz.

## 10.- Zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hizkuntza berdintasuna, enpleguaren babesa, lan baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa, eta datuen babesa hizpide dituen informazioa

Erakunde hauetan dago gai hauen inguruko betebeharrei eta indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua eta gainerako zerga administrazioak.
- Enplegua babestea, lan baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa, eta desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.
- Hizkuntza berdintasuna: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- Ingurumena babestea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia. IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa SA.
- Datu pertsonalak babestea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

## 11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren prerrogatibak

1.- Agiri honetan aipatzen den kontratua administratiboa da, eta arautzeko kontuan hartuko dira:

a) Administrazio klausula partikularren baldintza agiri hau.

b) Dagokion preskripzio teknikoen baldintza agiriak.

c) 1370/2007 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2007ko urriaren 23koa, bidaiariak trenbidez eta errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoei buruzkoa, Kontseiluaren 1191/69 (EEE) eta 1107/70 (EEE) Erregelamenduak indargabetzen dituena.

d) 4/2004 Legea, martxoaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideko Bidaiari Garraioari buruzkoa.

e) 51/2012 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena, apirilaren 3koa, Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua onesten duena.

f) 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, Lurreko Garraiobideen Antolamenduari buruzkoa.

g) 1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Lurreko Garraioak Antolatzeko Legearen Erregelamendua onesten duena (osagarri gisa aplikatzekoa Eusko Jaurlaritzaren 51/2012 Dekretuan aurreikusi gabekoetan, aipatutako dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoaren arabera).

h) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituena.

i) 2/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzkoa.

j) 55/2017 Errege Dekretua, otsailaren 3koa, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duena.

k) 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa.

l) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.

m) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaz onetsia.

n) 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.

ñ) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

2.- Administrazio klausula partikularren baldintza agiri hau kontratutzat hartuko da, eta kontratutzat hartuko dira, orobat, haren karatula eta eranskinak, preskripzio teknikoen agiria, ustiapen proiektua, adjudikaziodunaren eskaintza, langile subrogagarrien zerrenda eta kontratua formalizatzeko agiria. Agiri hau eta gainerako dokumentuak ez badatoz bat, agiri honetan xedatutakoa nagusituko da.

3.- Nolanahi ere, lehen aipatutako lege eta erregelamendu arauak aplikatuko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka ez doan guztian.

4.- Osagarri gisa, administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ez badago, zuzenbide pribatukoak.

5.- Baldintza agiri hau eta gainerako kontratu agiriak bat ez badatoz, baldintza agiri honetako edukia nagusituko da.

6.- Kontratuaren klausulak (edozein dela ere klausula horien edukia), haren parte diren gainerako kontratu dokumentuak eta itundutakoa gauzatzeko aplikatzekoak diren jarraibideak edo arauak ez ezagutzeak ez du esan nahi adjudikazioduna salbuetsita dagoenik klausula horiek betetzetik.

7.- Kontratazio organoak du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 190. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, administrazio kontratua interpretatzeko eta kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzeko eskumena. Era berean, egindako kontratua aldatzea eta suntsiaraztea erabaki ahal izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta hura garatzeko xedapenetan adierazitako mugen barruan eta hango baldintza eta ondorioei lotuta.

8.- Kontratua aplikatzeko edo interpretatzeko, gauzatzeko, aldatzeko, betetzeko edo suntsiarazteko auziren bat sortzen bada, Foru Aldundiko organo eskudunek ebatziko dute, emakidadunari entzun ondoren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 191. artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 97. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, eta berehala betearaziko da hark erabakitakoa.

9.- Interesdun baten eskariz hasitako prozeduretan, berariaz bestelakorik ezarri ez bada eta xedetzat diru zenbatekoak erreklamatzea, administrazio prerrogatibak baliatzea edo administrazio kontratu bat egikaritzeari, burutzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai badute, ebazpena emateko aurreikusitako epea ebazpena jakinarazi gabe igaroz gero, interesdunak administrazio isiltasunez ezetsitzat jo ahalko du bere eskaera, nahiz eta bere horretan iraungo duen ebazteko betebeharrak.

## 12.- Errekurtsoen araubidea

1.- Aukera izango da errekurtsoa jartzeko agiri honen eta preskripzio teknikoen agirien aurka, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44. artikuluan aurreikusitako kontratazio arloko errekurtso bereziaren bidez, 3.000.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duen kontratua bada.

2.- Era berean, jarduketa hauek errekurritu ahal izango dira:

a) Lizitazio iragarkiak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu dokumentuak.

b) Adjudikazio prozeduran bete diren izapide egintzak, baldin eta izapide horiek zuzenean edo zeharka adjudikazioari buruz erabakitzen badute, prozedura bat betetzen jarraitzea eragozten badute edo defentsa gabezia edo kalte konponezina ekartzen badute bidezko eskubide edo interesetan. Nolanahi ere, iritziko zaio kontratazio mahaiak edo organoak hautagaiak edo lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea erabakitzen duen egintzetan gertatzen direla aurreko inguruabarrak, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzen duen egintzetan, barnean harturik nabarmenki baxuegiak izateagatik 149. artikulua aplikatuta baztertzen diren eskaintzak.

c) Adjudikazio erabakiak.

d) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukaten aldaketak, aldaketak direla-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoelakoan.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 51. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, errekurtsoa kontratazio-organoaren erregistroan, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan aurkeztu beharko da, hamabost egun balioduneko epean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 50. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, errekurtsoa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 39. artikuluaren 2. paragrafoko c), d), e) edo f) apartatuetan aurreikusitako deuseztasun arrazoiren batean oinarritzen denean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 50.2 artikuluan aurreikusitako errekurtsoak jartzeko epeak hartuko dira kontuan.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan, bi hilabeteko epean.

3.- Gainerako kontratuetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo sektore publikoaren araubide juridikoaren indarreko araudian eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako errekurtso arruntak jarri ahal izango dira.

## II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

### 13.- Espediente mota eta lizitazio modua

1.- Kontratazio espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozeduraren eta izapidetzearen bidez egiten da.

Aldaerak onartuz gero, lizitatzaileek beste aukera batzuk eskaini ahal izango dituzte, ezaugarri taularen **12. atalean** ezarritako moduan eta preskripzio teknikoen baldintza agirian ezarritako eta atal horretan laburbildutako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin.

2.- Ezaugarrien taulan espedientearen presako izapidetzea zehazten bada, laburtu egingo dira lizitatzeko, adjudikatzeko eta formalizatzeko ezarritako epeak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako arauen arabera.

### 14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

1.- Administrazioarekin kontratuak egin ahal izango dituzte jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek —izan pertsona horiek espainiarrak, izan atzerritarrak—, baldin eta ez badute kontratatzeko inolako debekurik eta egiaztatzen badituzte, batetik, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta, bestetik, kaudimen teknikoa edo profesionala.

Aplikatzekoa den araudiak hala zehazten duelako, lizitatzaileari bere antolaketari, bere irabazien xedeari, finantzaketa sistemari edo bestelakoei buruzko baldintza jakin batzuk betetzea eskatzen bazaio adjudikazio prozeduran parte hartu ahal izateko, egiaztatu beharko ditu prozedura horretan parte hartzean.

2.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekuei buruz aurreko apartatuan aipatzen diren inguruabarrak, harik eta kontratua burutu arte guztian.

3.- Lizitatzaileek, orobat, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa edo lanbide gaikuntza izan beharko dute, kasuak hala eskatzean.

4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera eremua kontratuaren ez badatoz bat prestazioekin.

5.- Zenbait enpresak baterako proposamena aurkeztu ahal izango dute, aldi baterako elkarte bat eratu beharrik gabe eta enpresa lankidetzarako beste inolako modurik gabe, baldin eta berariaz adierazten badute konpromisoa hartzen dutela kontratua adjudikatu aurretik Lurreko Garraiobideen Antolamenduari buruzko Legearen 43.1.b) artikuluan eta Lurreko Garraioak Antolatzeko Erregelamenduaren 36. artikuluan adierazitako eskakizunak beteko dituen pertsona juridiko bat eratzeko, betiere haien eskaintza suertatzen bada hobekien baloratutakoa. Baldintza agiri honen **III. eranskinean** jasotzen da pertsona juridiko bat eratzeko konpromisoaren eredua.

6.- Europar Batasuneko, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako eta Europar Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

### 15.- Behin-behineko bermea

1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 106. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, salbuespen gisa, interes publikoko arrazoiengatik eta espedientean justifikatuta, kontratu honetarako behin-behineko berme bat eratzea eskatzen bada, ezaugarrien taulako **18. atalean** agertzen den zenbatekoa hartuko da.

2.- Bermeen formari eta betekizunei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 106.3 eta 108.1 artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 55., 56., 57. eta 58. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

3.- Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua perfekzionatu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei.

## 16.- Proposamenak aurkeztea

1.- Proposamenak lizitazio elektronikoko plataformaren bidez aurkeztuko dira (https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/), ezaugarri taularen **30. atalean** adierazitako epean, lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo erregulazio harmonizatuko kontratuetarako lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita.

2.- Agiriak, jakinarazpenak eta komunikazioak, baldintza agiri honen **I. eranskinean** jasotakoaren arabera bidaliko dira.

3.- Agiriak izendatzeko, kontuan hartuko dira baldintza agiri honetako **19.**, **20.** eta **21. klausuletan** adierazitako atalak, LEHENBIZIKO, BIGARREN ETA HIRUGARREN artxibo elektronikoetan sartu beharreko dokumentu eduki gisa adieraziak.

4.- Proposamenak isilpekoak izango dira, eta, ildo horretan, izaera hori bermatuko duten bitartekoak ezarriko dira lizitazio publikoa egin arte.

## 17.- Lizitatzaileei informazioa ematea

1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio gehigarria edo osagarria eman behar denean, Administrazio kontratatzaileak eskaintzak aurkezteko ezarritako epemuga baino sei egun natural lehenago eman beharko du gehienez ere, baldin eta eskaera data hori baino gutxienez hamabi egun natural lehenago aurkezten bada. Eskaera hori lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **1. atalean** aurreikusitako helbide elektronikoan egingo da.

2.- Premiazkotzat jotako espedienteetan, epea lau egun naturalekoa izango da gehienez ere, erregulazio harmonizatuko kontratuetarako eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino lehen.

3.- Argibideak kontratatzailearen profilean argitaratzen badira, erantzunak lotesleak izango dira.

## 18.- Proposamenen edukia

1.- Lizitatzaileak edo haren ordezkariak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu proposamenak.

2.- Fitxategi elektroniko bakoitzaren barruan, fitxategi independente batean, haren edukia agerraraziko da, zenbakiz adierazita (Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 80.1 artikulua).

## 19.- LEHENBIZIKO artxibo elektronikoa: "AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK"

1.- "AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK" izeneko artxibo elektronikoan, jarraian zerrendatzen diren dokumentuak sartu beharko dira, bai eta horiek guztiak zerrendatzen dituen aurkibidea ere.

a) **Jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko datuak**, I. eranskineko **gehigarrian** jasotako ereduaren arabera.

b) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)**. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, **III. eranskinean** jasotako jarraibideen arabera beteta, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta eta bertan adierazten den formulario ereduari egokituta.

   Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, EKAB bat aurkeztu beharko da horietako bakoitzeko.

Ezaugarrien koadroan aurreikusten denean kontratuaren xedea sortatan banatzea, kaudimen ekonomiko eta finantzarioko edo gaitasun tekniko eta profesionaleko betekizunak aldatzen badira sorta batetik bestera, Europako Kontratazio Agiri Bakarra aurkeztuko da kaudimen baldintza berberak aplikatzen zaizkion sorta edo sorta multzo bakoitzeko.

c) **Artikuluetan adierazitako baldintzak betetzen dituen pertsona juridikoa eratzeko konpromisoa. Lurreko Garraiobideen Antolamenduari buruzko Legearen 43.1.b) eta Lurreko Garraioak Antolatzeko Erregelamenduaren 36. artikulua, kasuak hala eskatzen badu**. Enpresa batek baino gehiagok baterako proposamen bat aurkezten dutenean, enpresa horiek dokumentu bat aurkeztu beharko dute, zeinean berariaz adieraziko baitute pertsona juridiko gisa eratuko direla kontratua adjudikatu aurretik, baldin eta enpresa horiek aurkeztutako eskaintza bada hobekien baloratutakoa Era berean, jasoko dira erantzukizun solidarioa eta enpresa bakoitzari elkartean dagokion partaidetza ehunekoa ere. Azkenik, ahaldun bat izendatuko da, pertsona juridikoa eratu arte elkartea ordezkatzeko. Elkartea osatzen duten enpresetako ordezkariek eta ahaldunak sinatu beharko dute idazkia. Kasu horietan, enpresa bakoitzak aurkeztu beharko du bere EKABa. Baldintza agiri honen **III. eranskinean** jasotzen da pertsona juridikoa eratzeko konpromiso eredua.

d) **Kontratua gauzatzeari giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena**, ezaugarrien taulako **15. atalean** adierazten diren profil eta zehaztapenekin. Baldintza agiri honen **IV. eranskinean** dago jasota.

e) **Enpresa lizitatzailearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena**, kide den enpresa taldeari buruzkoa eta talde berekoak diren sozietate guztiak biltzen dituena, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan. Ez bada enpresa talde bateko kide, ildo horretan egingo da aitorpena. Baldintza agiri honen **V. eranskinean** dago jasota eredua.

f) **Gipuzkoako Foru Administrazioaren kontratazio publikoari aplikatzekoak zaizkion jokabide kodea eta erakunde zuzentasunaren esparrua betetzeari buruzko adierazpena**. Adierazpen hori baldintza agiri honen **VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera egingo da.

g) **Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialen adierazpena.** Enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute, kasuak hala eskatzen badu, aurkeztutako zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu har daitezkeen beren ustez konfidentzialtzat. Inguruabar hori adierazitako dokumentuan bertan jaso beharko da (gainean inprimaturik, bazterrean edo beste edozein modutan). Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat har daitezke, baldin eta hirugarren pertsona edo erakundeei zabaltzea haien bidezko merkataritza interesen aurkakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke. Adierazpen hori bete ezean, ulertuko da dokumentuok edo datuok ez direla isilpekoak. Baldintza agiri honen **VII. eranskinean** dago jasota eredu hori.

h) **Behin-behineko bermea egiaztatzen duen agiria**, kasuak hala eskatzen badu. Behin-behineko bermea eskatzen bada, honela gordailutuko da:

- ES71 2095 0611 09 1062462774 IBAN kodea duen kontuan, eskudiruzko bermeak direnean. Kasu horretan, gordailu hori egiaztatzen duen frogagiria ere bildu beharko da.
- Idatzitako baloreen ibilgetze ziurtagiriak, abalak edo kauzio aseguruen ziurtagiriak direnean, kontratazio organoan (ikusi abal eredua **VIII. eranskinean**).

Enpresa taldeen kasuan, parte hartzen duen enpresa batek edo gehiagok eratu ahal izango dituzte behin-behineko bermeak, baldin eta, oro har, ezaugarrien taulako **18. atalean** eskatutako zenbatekora iristen badira eta proposameneko kide guztiak solidarioki bermatzen badituzte.

i) **Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berezitasunak**. Atzerriko lizitatzaile guztiek, gainera, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, **adierazteko Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla** kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, kasuak hala eskatzen badu, uko egin beharko diote atzerriko jurisdikzio foruari [Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140.1 f) artikulua].

Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Bakarrari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren egoitza dagoen tokiko Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako **txostena**. Agiri horretan adieraziko da, enpresak aldez aurretik egiaztatu ondotik, inskribaturik dagoela erregistro profesional, komertzial edo antzekoan, edo, halakorik ezean, kontratuaren xedearen toki esparruan jardun ohi duela.
- **Elkarrekikotasun txostena**, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 68. artikuluak aipatzen duena, salbu eta erregulazio harmonizatuko kontratuak badira; kasu horretan, Ekonomia Ministerioaren Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiak txosten bat egingo du, estatu horrek Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duela adieraziz.

2.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak noiznahi eskatu ahal izango diete lizitatzaileei justifika dezatela agiri bidez erantzukizunpeko adierazpenetan azaldu dituzten baldintzak.

Lizitatzaileak behar besteko epean aurkeztu beharko ditu eskatutako agiriak —ezin izango da izan bost egun baliodunetik gorakoa, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita—. Errekerimendua ez bada betetzen behar bezala adierazitako epean, ulertuko da lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela, eta prozeduratik kanpo utziko da.

## 20.- BIGARREN artxibo elektronikoa: "BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

1.- Baldin eta ezaugarrien taulako **19. atalean** balio judizioaren bidez hautematen diren eta aldez aurretik ebaluatu behar diren adjudikazio irizpideak sartu badira, lizitatzaileak BIGARREN artxibo elektroniko bat aurkeztu beharko du, "BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenburua duena, eta han jasoko du hartarako eskatzen den dokumentazioa.

2.- Artxibo elektroniko horretan ez da inola ere sartuko HIRUGARREN zenbakiko artxibo elektronikoari dagokion informaziorik.

3.- Lizitatzaileak, orobat, preskripzio teknikoen baldintza agirian berariaz adierazitako beste edozein agiri aurkeztu beharko du, egiaztatu ahal izateko eskaintzak betetzen dituela eskatutako zehaztapen teknikoak baina ez direla baloratuko. BIGARREN artxibo elektronikoan sartuko dira, artxibo hori aurkeztea nahitaezkoa bada, edo, bestela, HIRUGARREN artxibo elektronikoan.

## 21.- HIRUGARREN artxibo elektronikoa: "ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ EBALUA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA"

1.- "ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ EBALUA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA" izeneko artxibo elektroniko honetan, eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatuz ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak sartu beharko dira.

2.- Proposamenak **IX. eranskineko** ereduaren araberakoak izango dira, eta ez dira onartuko Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ulertzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek partida independente gisa adierazi beharko dute balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) zenbatekoa, jasanarazi behar bada.

Eskaintza ekonomikoa eta artxibo honetako gainerako dokumentazioa ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

3.- Proposamenen batek gainditu egiten badu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, aldatu egiten badu ezarritako ereduaren funtsa, akats nabarmena eragiten badu proposamenaren zenbatekoan, edo enpresa lizitatzaileak onartzen badu bideraezina dela hori, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko.

4.- Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, hargatik eragotzi gabe Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 142. artikuluan aldaeren onargarritasunari buruz xedatutakoa. Era berean, proposamen bateratua egiten duten enpresetako inork ezin izango du beste proposamen alternatibo bat aurkeztu, ez banaka, ez beste batzuekin batera. Printzipio hori urratuz gero, baztertu egingo dira aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak.

5.- Proposamena enpresa talde batek elkarrekin egiten badu, guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari baten bitartez.
6.- Ezaugarrien taulako **12. atalak** aldaerak aurkezteko baimena ematen duenean, oinarriari dagokion eskaintza ekonomikoaz aparte, artxibo horrek jaso ahal izango du aldaera bakoitzeko eskaintza ekonomiko bat ere. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa agiri honen **IX. eranskineko** ereduaren arabera egingo da, eta atal horretan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

## 22.- Aldaeren onargarritasuna

1.- Aldaerak onartuz gero, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrak kontratuaren xedeari dagokionez egoki iritzitako soluzio guztiak jaso ahal izango ditu, preskripzio teknikoen baldintza agirian ezarritako betekizun, modalitate eta ezaugarri teknikoekin, zeinak ezaugarrien taulako **12. atalean** baitaude laburbilduta. Aldaerak atal honetan bertan ezaugarrien koadroan ezarritako moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute gainditu kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

2.- Kasu guztietan ere, enpresa lizitatzaileek nahitaez egin beharko dute eskatutako oinarrizko zerbitzua emateari buruzko proposamen esklusibo eta hitzez hitzezkoa. Prestazioa gauzatzeko epea eta prezioa, bi kasuetan, ezaugarrien taulan jasotakoen berdina edo txikiagoa izango da, eta bat etorri beharko dute, kasu guztietan ere, aurkezten den lan programan jasotakoekin.

## 23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

1.- Proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresa lizitatzaileak baldintza agiri honetako eta preskripzio teknikoen baldintza agiriko klausulak baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta mahaiari eta kontratazio organoari baimena ematea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Baldintza agiriei men ez egiteak nahitaez ekarriko du eskaintza baztertzea.

2.- Lizitatzaileek ezin izango dute beren proposamena erretiratu ehun egun naturaleko epean, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, edo sei hilabeteko epean, kontratua esleitzeko beste irizpide batzuk kontuan hartzen direnean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 158.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Epe hori hamabost egun baliodunez luzatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan (eskaintza anormalki baxuei buruzkoa) aipatzen diren izapideak egin behar direnean.

3.- Proposamen bat bidegabe erretiratzen bada, lizitatzaileak ezin izango du kontratatu administrazio publikoekin, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71.2 artikuluan

xedatutakoaren arabera, eta, aldi berean, konfiskatu egingo da behin-behineko bermea, baldin eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 106.1 artikuluari jarraikiz, berme hori eskatu bada.

## 24.- Kontratazio mahaia

1.- Kontratazio mahaia eskaintzak baloratzeko eskumena duen organo teknikoa da, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du, bai eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluen arabera ere, haietan zehazten baitira haren osaera eta funtzioak.

2.- Haren osaera ezaugarrien taulako **29. atalean** jasotzen da, eta kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko da, lizitazio iragarkiarekin batera, edo, bestela, eratu aurretik, aipatutako profilean iragarki espezifiko bat argitaratuta.

3.- Justifikatutako edozein arrazoirengatik mahaiko kideren bat hutsik, gaixorik edo absente egonez gero, ordezkapen araubide hau ezartzen da kontratazio mahaiko kideentzat:

- Presidentea: mahaikideek ordeztuko dute haren titularitatea, agiri honen ezaugarrien taulan edo, kasuaren arabera, kontratatzailearen profilean adierazitako hurrenkeran.
- Mahaikideak: oro har, titularrak kokatuta dauden zerbitzu edo kudeaketa unitateei atxikitako funtzionarioek ordezkatuko dituzte mahaikideak, edo, bestela, haien mende dauden zuzendaritzako beste zerbitzu batzuei atxikitakoek, eta mahaiko presidenteak izendatuko ditu. Adierazitako moduan ordezterik ez badago, departamentuko kudeaketa zerbitzuei atxikitako funtzionarioek ordeztuko dituzte mahaikideak, mahaiko presidenteak izendatuta.
- Kontu-hartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuari atxikitako mahaikidea zerbitzu horretako funtzionario batek ordeztuko du.
- Idazkaria: kontratua kudeatzen duen departamentuari atxikitako funtzionario batek ordeztuko du, eta mahaiko presidenteak izendatuko.

## 25.- Proposamenak irekitzea eta aztertzea

### 25.1.- LEHENBIZIKO artxibo elektronikoak irekitzea eta administrazio dokumentazioa kalifikatzea

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio mahaiak ireki eta kalifikatu egingo du lizitatzaileek garaiz eta behar bezala LEHENBIZIKO artxibo elektronikoan aurkeztutako administrazio dokumentazioa. Mahaiak akats edo omisio zuzengarririk ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan, jakinarazi egingo die alderdi interesdunei, eta gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango die zuzentzeko edo onbideratzeko. Mahaiak, orobat, eskatu ahal izango die aurkeztutako agirien dokumentazio osagarria edo argigarria lizitatzaileei, eta bost egun naturaleko epea emango die horretarako.

2.- Interesdunei bitarteko elektronikoen bidez egingo zaizkie jakinarazpenok.

3.- Azkenik, kontratazio mahaiak erabakiko du zein lizitatzaile onartzen diren lizitaziora, zein ez, eta zein diren ezezkoa emateko arrazoiak.

### 25.2.- BIGARREN artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (BIGARREN artxibo elektronikoa den kasuetan bakarrik)

1.- Nahitaez aurkeztu behar diren kasuetan, BIGARREN artxibo elektronikoak irekiko dira, “BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenekoak, eta ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da haien edukia.

2.- Egintza hori hasteko, proposamenen kalifikazioari buruzko berariazko erabaki bat hartuko du mahaiak, eta lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak identifikatuko ditu.

3.- Lizitazioaren prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak, bai eta BIGARREN artxibo elektronikoan formulak aplikatuz ebaluatu behar den informazioa sartzen dutenak ere (horrelakoak HIRUGARREN artxibo elektronikoetan doaz).

### 25.3.- HIRUGARREN artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea

1.- HIRUGARREN artxibo elektronikoak ekitaldi publikoan irekiko dira, eta, oro har, zuzenean jarraitu ahal izango da, kontratatzailearen profilean deialdian adierazten den estekaren bidez.

2.- HIRUGARREN artxibo elektronikoak jendaurrean irekitzeko, BIGARREN artxibo elektronikorik ez dagoenean, proposamenen kalifikazioari buruzko berariazko erabakia emango du mahaiak, eta lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak identifikatuko ditu.

3.- Balio judizioen bidez ebaluatzeko irizpideak izanez gero, ekitaldi honetan jakinaraziko da emaitza.

4.- Ondoren, kontratazio mahaiak ontzat emandako lizitatzaileen HIRUGARREN artxibo elektronikoak irekiko ditu, “ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ EBALUA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA” izenekoak, eta eskaintzak irakurriko ditu.

5.- Artxibo elektroniko horietan jasotako dokumentazioa ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da.

6.- Kasu guztietan ere, irizpide horien ebaluazioa BIGARREN artxibo elektronikoetako dokumentazioa baloratu ondoren egingo da beti.

### 25.4.- Kontratazio mahaiaren aktak

Aurreko apartatuekin bat etorriz egindako guztia dagokion aktetan jasoko da, eta hantxe jasoko dira prozeduraren emaitza eta gorabeherak.

## 26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitzen publizitatea eta ukituriko lizitatzaileei jakinaraztea

1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena edo bazterketa kontratatzailearen profilean argitaratuko dira. Baztertu egingo da indarrean dagoen legediaren arabera argitaratu ezin den informazioa. Horrek guztiak ez du esan nahi ukituriko lizitatzaileei jakinarazi behar ez zaienik.

2.- Lizitatzaile bat baztertzeko egintza Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduren arabera jakinaraziko da.

3.- Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egitea baztertutzat joko da baldin eta jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun natural igaro badira eta ez bada haren edukira sartu; eta jakinarazpena egiteko betebeharra epe barruan bete dela ulertuko da, jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskura jarriz gero.

## 27.- Adjudikazio irizpideak

1.- Kontratua adjudikatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak eta horien haztapena, bai oinarrizko eskaintzari dagozkionak, bai aldaerei aplikatzekoak, lizitazio iragarkian eta **19. atalean** ezaugarrien koadroan ezarritakoak izango dira.

2.- Eskaintza formalki zuzentzeko eskatuko zaie paperaren tamainari, marjinei, letra motari eta testu idatzien lerroarteari dagokienez (alde batera utzita grafikoak, argazkiak, diagramak...) ezaugarri taularen **19. atalean** adierazitako ezaugarri formalak betetzen ez dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei, betiere eskaintzaren eduki materiala aldatu gabe. Eduki hori aldatzen bada, prozeduratik kanpo geratuko dira berehala.

Errekerimendua egin ondoren, informaltasun horrek bere horretan jarraitzen badu, proposamenak ez dira baloratuko dagokion adjudikazio irizpideari dagokionez, eta ez-betetze horrek ez du inola ere ekarriko adjudikazio prozeduratik kanpo uztea.

3.- Ez dira inola ere prozeduratik kanpo utziko ezaugarri formal horiek bete arren **19. atalean** adjudikazio irizpideekin lotutako atal bakoitzerako ezarritako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak (azalak eta indizeak kontuan hartu gabe). Gehieneko luze-laburra gaindituz gero, edukia baloratuko da onartutako gehieneko orrialde kopurura arte.

4.- Enpresa lizitatzaileren batek ez badu aurkezten adjudikazio irizpideei buruzko dokumentazioa, enpresa horren proposamena ez da baloratuko dagokion irizpideari dagokionez.

## 28.- Eskaintzak ebaluatzea

1.- Mahaiak bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Kontratazio mahaiak baztertu egingo ditu eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak.

3.- Balio judizio baten mende dauden irizpideek haztapen osoaren % 50 gainditzen dutenean, kualifikazio egokia duten adituek edo erakunde tekniko espezializatu batek osatutako batzorde batek egingo du BIGARREN artxibo elektronikoaren aurretiazko ebaluazioa. Batzorde hori berariaz adieraziko da ezaugarrien taulako **19. atalean**, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Atal horretan, adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak baloratu beharreko irizpide zehatzak jasoko dira, bai eta balorazioa egiteko epea eta balorazioa kuantifikatzeko gehieneko eta gutxieneko mugak ere.

## 29.- Eskaintzak argitzea

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak argibideak eskatu ahal izango dizkie lizitatzaileei aurkeztutako eskaintzei buruz, baita haiek idaztean egindako akats material nabarmenak zuzentzeko ere, betiere tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuz eta eskaintzen baldintzak inola ere aldatu gabe. Egindako guztia agiri bidez jaso beharko da espedientean.

## 30.- Balio anormalki baxuak dituzten eskaintzak

1.- Kontratazio organoak parametro objektiboak ezarriko ditu ezaugarri taularen **19. atalean**, eta, parametro horiei jarraikiz, ulertuko da proposamena ezin dela bete, anormalki baxua izateagatik.

2.- Anormaltasun presuntzioa izan dezaketen proposamen bat edo batzuk identifikatzen direnean, kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatuko die justifikatu eta xehatu ditzatela proposamenean eskaintzaren anormaltasuna definitu duten parametroak, arrazoituta eta xehe-xehe, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluko 4. apartatutik 6.era bitartekoetan aurreikusitako prozedura izapidetuz. Horren emaitza ikusita, kontratazio organoari proposamena onartzea edo ukatzea proposatuko zaio.

## 31.- Prozedurako ondorengotza

1.- Bat egiteko, zatitzeko edo enpresaren ondarea edo jarduera adar bat eskualdatzeko eragiketa bat gertatzen bada prozedura izapidetzen den bitartean eta kontratua formalizatu baino lehen, sozietate bereganatzailea, bat-egitearen emaitza dena, zatiketaren onuraduna dena edo enpresa ondarearen edo jarduera adarraren eskuratzailea izango da enpresa lizitatzailearen edo hautagaiaren ondorengoa prozeduran, baldin eta horretarako gaitasuna badu eta kontratatzeko debekurik ez badu eta bere kaudimena nahiz sailkapena egiaztatzen baditu, betiere adjudikazio prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio klausula partikularren agirian eskatutako baldintzak beteta.

2.- Aurreko apartatuan aipatutako eragiketak enpresa elkarteen barruan egiten badira, ez dute eragotziko eragiketa horiek adjudikazio prozeduran jarraitzea. Bat-egitearen emaitza den sozietate bereganatzaileak, banantzearen onuradunak edo jarduera adarraren eskuratzaileak, ez

badira aldi baterako taldea osatzen duten enpresetakoak, jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, ez dute izan behar kontratatzeko debekurik eta exijitutako kaudimen, gaitasun edo sailkapenari eutsi beharko diote.

## 32.- Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio prozeduran atzera egitea.

1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 152. artikuluaren arabera, kontratazio organoak formalizatu aurretik hartu ahal izango ditu kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia eta adjudikazio prozeduran atzera egiteko erabakia, lizitatzaileei jakinarazi ondotik, bai eta Europako Batzordeari jakinarazita ere, kontratua Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean iragarri bada.

2.- Bi kasuetan, gai diren hautagaiei edo lizitatzaileei konpentsazioa emango zaie, baldintza agiri honen ezaugarrien taulako **26. atalean** adierazitako zenbatekoan.

## 33.- Adjudikazioa

### 33.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjukazio proposamena

Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio mahaiak, aktarekin batera, dagokion balorazioa eta adjudikazio proposamena bidaliko dizkio kontratazio organoari. Proposamen horretan, eskaintzak beherantz ordenatuko dira, ezaugarrien taularen **19. atalean** adierazitako irizpideak aplikatuz, bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezio erlaziorik onena duena identifikatuko da.

Kontratu hau Lurreko Garraiobideen Antolamenduaren Legearen 73.1 eta 74.1 artikuluetan eta Lurreko Garraioak Antolatzeko Erregelamenduaren artikulu bateragarrietan xedatutakoaren arabera esleituko da. Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145., 146., 156., 157. eta 158. artikuluetan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko dagozkion artikuluetan eta aplikagarri zaizkion Sektore Publikoko Kontratuen Legearen gainerako artikuluetan aurreikusitako prozedurari jarraituz izapidetuko dira.

Kontratu hau ez dago erregulazio harmonizatukoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 19.2 g) artikuluan ezarritakoaren arabera, bidaiariak garraiatzeko emakida kontratu bat baita.

Lizitaziorako hartutako prozedura, beraz, edozein operadoreri irekita dago, bidezkoa da, eta errespetatzen ditu gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak. Hori horrela, betetzen 1370/2007 (EE) Erregelamenduaren 5. artikuluko 1. eta 3. apartatuetan eta Lurreko Garraiobideen Antolamenduaren Legearen 73.1 artikuluan eskatutakoa.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du sortzen inolako eskubiderik proposatutako lizitatzailearen alde, eta ez du halakorik eskuratuko Administrazioaren aurrean, harik eta kontratua formalizatu arte.

Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa denean, preziorik baxuena duena joko da eskaintza onentzat.

### 33.2.- Kalitate-prezio erlaziorik oneneko eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aldez aurreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea

1.- Kontratazio organoak mahaiaren proposamena ontzat eman ondotik, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari hiru hilabeteko epea emango zaio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua adjudikatzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkez dezan.

Hona hemen aurkeztu beharko dituen agiriak:

a) **Jarduteko gaitasuna eta jarduera eremua egiaztatzen duten agiriak**. Enpresa pertsona juridikoa bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko eratze edo aldaketa eskritura aurkeztu beharko da, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, aplikatzekoa den merkataritza legeriaren arabera baldintza hori bete behar denean. Merkataritza Erregistroan inskribatzeko obligaziorik ez badago, jarduteko gaitasuna frogatzeko, dagokion erregistro ofizialean inskribaturiko eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera agiria aurkeztu beharko dira, jarduera erregulatzen duten arauak jasota ageri dituena.

   Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo kontratuaren jarduera eremua ez badatoz bat prestazioekin, eta aurkeztutako dokumentazioan egiaztatu beharko da hori.

   Enpresa indibiduala bada, Nortasun Agiri Nazionala edo agiri baliokidea aurkeztuta.

b) **Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak, halakorik denean.** Beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek NANaren kopia aurkeztuko dute, eta horretarako ahalorde nahikoa izan beharko dute.

   Ordezkariak ez badu NANik, erregelamenduz ordezten duen agiriaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legeztatua edo administrazio organo eskudunak konpultsatua.

   Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon behar du. Hala eta guztiz ere, Merkataritza Erregistroko Erregelamenduko 94.1.5 artikuluan xedaturikoaren arabera, ahalordetze hori egintza jakin baterako bada, ez du Merkataritza Erregistroan jasota egon beharrik.

   Ez da beharrezkoa izango ordezkaritza ahalordea egiaztatzeko agiriak aurkeztea, baldin eta ordezkaritza hori Gipuzkoako Foru Aldundian inskribatuta badago, dela legezko ordezkarien erroldan, dela borondatezko ordezkaritzaren errolda korporatiboan, izapide hori egiteko ahalorde nahikoarekin.

c) **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala.** Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako eta lizitazio iragarkian eta ezaugarri taularen **14. atalean** zehaztutako bitartekoen bidez.

   Enpresa-talde bat denean, kontratuaren administrazio-klausula berezien agirian eta baldintza teknikoen agirian eskatzen diren kaudimen ekonomikoko gutxieneko baldintzak egiaztatu ahal izango dituzte, honako bi mekanismo hauen bidez:

   - Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez integratzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 75. artikuluan deskribatutako moduan. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

   - Baterako proposamenean parte hartzen duen enpresetako batek, gutxienez, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren 80.2 artikulua.

   Espainiakoak ez diren lizitatzaileek, Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak badira eta ez badaude Espainian sailkatuta, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, sailkapenaren ordez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 87. eta 88. artikuluetan ezarritako moduan, eta kontratazio

organoak ezaugarrien taulako **14. atalean** aurreikusitako bitartekoak baliatuko dituzte horretarako.

Ondorio horietarako, gaitasun presuntziotzat hartuko dira Europar Batasuneko estatu kideek ezarritako enpresa eta enpresaburuen zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek emaniko inskripzio ziurtagiriak, ziurtagiria ematen duen estatu kidean kokatutako enpresa eta enpresaburuei dagozkienak, bertan agertzen diren hautaketa kualitatiboko betekizunei dagokienez.

Presuntzio balio berbera izango dute, haietan ziurtatutako gaiei dagokienez, lizitatzailea ezarrita dagoen estatu kideko legeriarekin bat datozen ziurtatze organismo eskudunek emandako ziurtagiriek, Europako ziurtapen arauak betetzen dituztenean.

Aurreko apartatuan aipatutako agirietan, enpresaburua zerrendan inskribatzeko edo ziurtagiria emateko erabili diren erreferentziak adierazi beharko dira, baita lortutako sailkapena ere.

d) **Nortasunaren, lanbide trebakuntzaren, ohoragarritasunaren eta gaitasun ekonomikoaren baldintzak egiaztatzea, adjudikazioaren uneari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bidaiarien Errepideko Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 10. eta 11. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz**.

e) **Giza baliabideak eta baliabide materialak benetan badituela egiaztatzen duen dokumentazioa** aurkeztea, ezaugarrien taulako **15. atalean** adierazitako profil eta zehaztapenekin.

f) **Kaudimena kanpoko baliabideen bidez egiaztatzeari dagokionez** (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 75. artikuluaren arabera), frogatu beharko du badituela egiaz kontratua gauzatzeko giza baliabide eta baliabide material horiek, eta kanpoko erakundeen idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko da.

Lizitatzaileak kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen bitarteko berberekin gauzatuko du kontratua. Aurreikusi ezin diren arrazoiak direnean bakarrik ordeztu ahal izango ditu, kaudimen baliokidea egiaztatzen duten beste bitarteko batzuk ipinita, betiere Administrazioaren baimenarekin.

g) **Ingurumena kudeatzeko eta kalitatea bermatzeko arauak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak**.

h) **Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak**. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Kontratua kudeatzen duen organoari baimena eman ahal izango dio eskatu beharreko ziurtagiriak eskatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aurrean. Proposamen bateratua eskatuz gero enpresa baten baino gehiagoaren artean, bakoitzak aurkeztu beharko du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

i) 50 langile edo gehiago dituzten enpresek **egiaztatu beharko dute badutela berdintasun plan bat**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

j) **Desgaitasuna duten langile kopurua egiaztatzeko dokumentazioa**. 50 langile edo gehiagoko enpresek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonei gordetako lanpostuen kuota betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, edo, osagarri gisa edo subsidiarioki, har daitezkeen neurriak betetzen direla egiaztatzen duena, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan eta dagokion garapen araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz.

k) **Ekonomia jardueren gaineko zergari (EJZ) lotutako jarduerak egiten direnean**: uneko ekitaldiari dagokion alta edo azken ordainagiria, zerga horren matrikulan baja eman ez

izanaren erantzukizunpeko adierazpena eta, kasuak hala eskatzen duenean, salbuetsita egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

l) Bidezkoa bada, honela jarri ahal izango da **behin betiko bermea**:

- ES71 2095 0611 09 1062462774 IBAN kodea duen kontuan, eskudiruzko bermeak direnean. Kasu horretan, gordailu hori egiaztatzen duen frogagiria ere bildu beharko da.
- Idatzitako baloreen ibilgetze ziurtagiriak, abalak edo kauzio aseguruen ziurtagiriak direnean, kontratazio organoan (ikusi abal eredua **VIII. eranskinean**).

m) Proposamen adjudikazioduna **enpresa talde batek** egindako baterako proposamena bada, Lurreko Garraiobideen Antolamenduaren Legearen 43.1.b) artikuluan eta Lurreko Garraioak Antolatzeko Erregelamenduaren 36. artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen dituen pertsona juridiko bat eratzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko da, esleitutako IFKrekin eta behar adina botere duen ordezkariaren izendapenarekin batera. Proposamen adjudikazioduna **aldi baterako enpresa-elkarte batek (ABEE)** egindako baterako proposamena bada, eraketaren eskritura publikoa, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dira, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituztenak, eta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta, esleitutako IFKrekin eta behar besteko ahalordea duen ordezkariaren izendapenarekin batera.

2.- Aurrekoa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzio ziurtagiria aurkeztuz gero, erregistroan inskribatuta dauden inguruabarren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu enpresa lizitatzaileak, bertan adierazitakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskripzio ziurtagiria aurkezteak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 87.2 eta 96. artikuluetan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, adierazteko ez direla aldatu ziurtagirian jasotako inguruabarrak.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzioan egiaztatu beharreko baldintzaren bat agertzen ez bada, enpresak justifikatu egin beharko ditu Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako bideetako bat erabiliz.

Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu baten datu base nazional batean ageri denean —esate baterako, enpresaren espediente birtual batean, dokumentuen biltegiratze elektronikorako sistema batean edo aurrekalifikaziorako sistema batean—, eta horiek organo horietarako doan eskuragarri daudenean, enpresaburuak ez du izango aipatutako tokietan inskribatutako datuei buruzko egiaztagiririk edo dokumentu frogarik aurkezteko betebeharrik. Hala, lizitatzaileak dagokion erregistroan edo datu basean inskribatuta dagoela adieraztea bakarrik beharko da.

3.- Ez bada behar bezala eta ezarritako epean aurkezten aurreko bi apartatuetan aipatzen den dokumentazioa, ulertuko da lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio zigor gisa, BEZik gabe. Hala, behin-behineko bermearen bidez ordainduko da lehenbizi, baldin eta halakorik eratu bada.

Aurreko apartatuan adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari jarraikiz (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 150.2 artikulua).

4.- Lizitatzaileak doloz, erruz edo zabarkeriaz ez badu betetzen klausula honetan ezarritakoa, kontratatzeko debekutzat jo ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71.2 a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### 33.3.- Behin betiko bermea

1.- Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko bermea jarri beharko du kontratazio organoaren eskura. Kontratuaren zenbatekoa lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren % 5 izango da, edo lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoaren % 5 kontratua unitateko prezioen arabera egiten denean, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta. Lau hilabeteko epean egiaztatu beharko da berme hori eratu dela, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 150.2 artikuluko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.- Ezaugarrien taulako **18. atalean** agertzen den behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da. Baldintza hori ez bada betetzen enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Administrazioak ez du egingo haren aldeko adjudikaziorik.

3.- Ezaugarrien taulako atal horretan hala aurreikusten bada, prezioan atxikipena eginez eratu ahal izango da.

Prezioan atxikitzearen bidez eratzen bada, behin betiko bermea emakidadunari jasanaraziko zaio, aldez aurretik berariazko baimena emanda. Berme horren zenbatekoa lehenengo fakturatik eta hurrengoetatik kenduko da, harik eta zenbateko osoa hartu arte.

4.- Eska dakizkiokeen kalte ordainak edo zigorrak bermearen bitartez ordaintzen badira, emakidadunak berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa handitu, dagokion heinean. Kalte ordainak edo zigorrak ordaintzen direnetik hamabost egun izango ditu horretarako, eta hala ez egitea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

5.- Kontratuaren aldaketa baten ondorioz prezioa aldatzen bada, hamabost egun naturaleko epean birdoitu beharko da bermea, adjudikaziodunari aldaketa erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita, aldatutako prezio berriarekin behar den proportzioa gorde dezan.

6.- Nolanahi ere, behin betiko bermeak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo die. Kontzeptu horien barruan sartzen da kontratistak ez betetzea bere eginbeharra, kontratua egikaritzeko bete beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte galera guztien kalte ordaina emateari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

7.- Behin-behineko bermea eratzen den kasuetan, adjudikaziodunak aukeran izango du behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betikoari aplikatzea, edo azken hori berriro eratzea.

8.- Berme osagarria Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 107.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarriko da, eta, kasuak hala eskatzen duenean, ezaugarrien taulako **18. atalean** xedatutakoari jarraituko zaio.

### 33.4.- Adjudikazioa

1.- Kontratazio organoak proposamenak ireki eta bi hilabeteko epean adjudikatu beharko du kontratua.

Ezingo da lizitazio bat adjudikatu gabe utzi, baldin eta baldintza agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

2.- Adjudikazio ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Hamabost eguneko epean argitaratu beharko da kontratatzailearen profilean.

3.- Adjudikazio ebazpenean sartuko da enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikagarri deklaratzen dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 5/2016 Legearen arabera, kontratua esleitutakoan, adjudikaziodunak langileei benetan aplikatzen zaizkien lan baldintzei buruzko informazio guztia eman beharko du.

4.- Aurreko 2. apartatuan aipatutako jakinarazpenean eta publizitatean, adjudikazio prozeduran interesa duten pertsonek adjudikazio erabakiaren aurkako errekurtsoa jartzeko behar duten informazioa jasoko da, eta, bereziki, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151.2 artikuluan eskatutakoa.

5.- Adjudikazioaren arrazoiari Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 155.3 artikuluan jasotako konfidentzialtasun salbuespena aplikatuko zaio.

6.- Kasu guztietan ere, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean adieraziko da zein epetan formalizatu behar den, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- Jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertuta egingo da.

## 34.- Kontratua formalizatzea

1.- Kontratua lizitazioaren baldintzekin bat datorren administrazio agiri batean formalizatu beharko da, eta edozein erregistro publikotan sartzeko titulu nahikoa izango da. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake emakidadunak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu adjudikazio irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik.

2.- Kontratua formalizatzen denean burutzen da, eta bertan adierazten da zein egunetan hasiko den gauzatzen. Ezin izango da inola ere hasi kontratua gauzatzen, aldez aurretik formalizatu gabe.

3.- Kontratua sinatu aurretik, adjudikaziodunaren ordezkariak agiri hauek aurkeztu beharko dizkio kontratazio organoari:

a) Nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzen dituzten agiriak.
b) Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak emandako ziurtagiria aurkezten bada, adjudikaziodunak ziurtagiri hori ematea eragin zuten inguruabarren indarraldia berretsi beharko du.

4.- Kontratuaren aurka errekurtso berezia jar badaiteke kontratazioaren arloan, ezingo da formalizatu lizitatzaileei adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Kontratuaren formalizazioa sinatzeko, kontratazio organoak gehienez bost egun naturaleko epea emango dio adjudikaziodunari, adjudikaziodunak errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita, baldin eta aurreko apartatuan adierazitako epea iragan bada eta ez bada jarri kontratuaren sinadura etetera behartzen duen errekurtsorik. Berdin jokatuko da errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

5.- Gainerako kasuetan, kontratua gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, adjudikaziodunak adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

6.- Kontratuaren edukian berariaz sartu beharko dira adjudikaziodunak proposamen teknikoan bere gain hartzen dituen betebeharrak, gizarte eta ingurumen alderdiei buruzko adjudikazio irizpide gisa baloratutako alderdiei dagokienez, guztia ere erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzeko urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.- Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio zigor gisa, BEZik gabe. Hala, behin betiko bermearen bidez ordainduko da lehenbizi, baldin eta eratu bada. Nolanahi ere, kontratatzeko debekutzat jo ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

8. Kontratua ez formalizatzea administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio emakidadunari.

9.- Kontratua formalizatu dela jakinarazteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 154. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

## III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA

### 35.- Kontratuaren arduraduna

1.- Kontratua adjudikatzeko ebazpenean, kontratazio organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta hari egokituko zaio kontratua betetzen dela gainbegiratzea, bai eta beharrezko erabakiak hartzea eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko jarraibideak ematea ere.

Era berean, kontratuaren arduradunak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesionalen edo ezagutza espezifikoen arabera, zeinak kontratua adjudikatzeko ebazpenean bertan identifikatuko baitira, edo, une horretan ezinezkoa bada, geroago beste momenturen batean.

Kontratuaren arduraduna da enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

2.- Beren eginkizunak betetzeko, arduradunak eta harekin lankidetzan dihardutenek sarbidea libre izango dute kontratuaren xedea betetzeko tokietara, eta egoki iritzitako ikuskapenak egin ahal izango dituzte, segurtasun eta osasuneko koordinatzaile izendatutako pertsonak lagunduta, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak erabakigarriak badira kontratuaren xede diren prestazioak garatzeko. Kasu horietatik kanpo, kontratuaren arduradunak administrazio espedientean justifikatu beharko du irispidea izateko beharra, berariaz eta xehetasunez, eta kontratazio organoak aldez aurretik berretsi beharko du.

Era berean, egoki iritzitako informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta beharrezko bilerak sustatu eta deitu ahal izango dituzte, kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko eta kontratua gauzatzean gerta daitekeen edozein gorabehera konpontzeko.

3.- Kontratuaren arduradunak ezarriko ditu horretarako jarraibide egokiak.

Zehazki, eginkizun hauek dagozkio:

a) Kontratua kontratuko baldintzen arabera eta aurreikusitako denboraren barruan gauzatzen dela egiaztatzea. Esandako funtzio horri esker, beharrezko neurriak hartu ahalko ditu egiaztatzeko betetzen direla kontratuaren kalitate baldintzak eta klausula sozialak, ingurumenarekin lotutakoak, sozialak eta berrikuntzari dagozkionak.
b) Kontratazio organoari jakinaraztea edozer eratako ez-betetzeak gertatzen direnean, eta, hala egokitzen denean, prozedurak abiaraztea zehapenak ezartzeko, kontratua eteteko edo indargabetzeko, bestelako hainbat neurri hartzeko kontratua egokiro betetzen dela egiaztatzeko, edo administrazioari dagokion kalte eta galerak ordaintzeko, emakidadunaren ez-betetzeek halakorik eragin izan balute.
c) Kontratuan beharrezko aldaketak proposatzea, hala nola zehaztapenak, jarraibideak eta bestelako eskakizunak, eragiketak efikazago izateko.
d) Kontratazio organoaren jarraibideei men eginez, kontratuari atxikitako giza baliabideak edo baliabide materialak aldatzeko baimena ematea, baldin eta ez badute aldatzen kontratuaren edukia.
e) Luzapenen beharrari eta egokitasunari buruzko informazioa eta arrazoiak ematea.
f) Kasuak hala eskatzen badu, egiaztatzea enpresa emakidadunak betetzen duela azpikontratistei ordaintzeko eginbeharra.

4.- Kontratua gauzatzen den bitartean kontratuaren arduradunaren edo laguntzaileen izendapena aldatzen bada, idatziz jakinaraziko zaio enpresa emakidadunari, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

### 36.- Emakidadunaren pertsona ondorengotza

1.- Enpresetan edo horien jarduera adarretan bat-egiteak, zatiketak, ekarpenak edo eskualdaketak gertatzen diren kasuetan, kontratuak aurrera jarraituko du kontratua esleitzen zaion erakundearekin, eta subrogatuta geratuko dira kontratuak dakartzan eskubide eta

betebeharrak, baldin eta betetzen badira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 98. artikuluan eskatutako baldintzak.

2.- Emakidadunak modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Administrazioari bere nortasun juridikoari eragiten dion edozein aldaketa, eta, horiek egiaztatu arte, eten egingo da dagozkion fakturak ordaintzeko legez aurreikusitako epeen zenbaketa.

3.- Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen erakundeak ez dituelako betetzen beharrezko kaudimen eta gaitasun baldintzak, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela iritziko zaio ondorio guztietarako.

## 37.- Kontratua lagatzea

1.- Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak hirugarren pertsona bati laga ahal izango dizkio kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak, baldin eta haren ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira izan kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarriak eta lagapenak ez badu murrizten benetan merkatuko lehia.

2.- Emakidadunak bere eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazio organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena. Baimen hori hurrengo letretan aurreikusitako baldintzak betetzen badira emango da. Baimen eskaerari buruzko ebazpenaren jakinarazpenerako epea bi hilabeteko izango da; epe hori iraganda, administrazio isiltasunez eman dela iritziko zaio.

b) Lagatzaileak kontratuaren iraupen epearen bosten batean gutxienez ustiatu izana. Baldintza hori ez da aplikatuko baldin eta lagapena emakidaduna konkurtsoan dagoela gertatzen bada, nahiz eta likidazio fasea ireki, edo baldin eta konkurtsoa deklaratzeko epaitegi eskudunari jakinarazi bazaio negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat lortzeko edo hitzarmen proposamen aurreratu baterako atxikipenak lortzeko, betiere konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

c) Enpresa lagapen hartzaileak kontratatzeko gaitasuna eta kontratua gauzatzeko fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea, eta ez izatea, orobat, kontratatzeko debekurik.

d) Lagapena eskritura publiko bidez formalizatzea, enpresa adjudikaziodunaren eta enpresa lagapen hartzailearen artean.

3.- Lagapen hartzailea subrogatuta geratuko da lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztietan.

4.- Emakidaduna kontratua gauzatzeko helburu espezifikoko sozietate gisa eratu bada, sozietate horren partaidetzak lagatzeko baimena emango da. Sozietateko partaide batek partaidetzen ehuneko 50 baino gehiago eskuratzen dituenean, ulertuko da benetako kontrol aldaketa gertatzen dela emakidadunean; hala, kontratu lagapen baten parekoa izango da partaidetzen lagapen hori, artikulu honetan aurreikusitakoaren arabera baimentzeko.

## 38.- Enpresa emakidadunaren baldintzak eta betebeharrak

### 38.1.- Baldintza orokorrak

1.- Enpresa emakidadunaren arrisku eta menturara gauzatuko da kontratua, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 285. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokio eragiketa arriskua.

2.- Pertsona edo enpresa emakidadunak nahitaez antolatu eta eman beharko du zerbitzua, eta zorrotz bete beharko ditu kontratuan ezarritako ezaugarriak eta epeak.

3.- Kontratua interpretatzeko, kontratuaren arduradunak emakidadunari emandako jarraibideak hartuko dira aintzakotzat.

4.- Kontratua bete izanagatik iraungitzen bada, emakidadunak jarraitu egin beharko du zerbitzua ematen harik eta kontratu berria formalizatu arte.

5.- Emakidadunak kontratuan zehazturik datozen diru ordainak jasotzeko eskubidea du; horien artean izango da, zerbitzua ustiatzeko eskubidea benetan gauzatze aldera, zerbitzuaren erabileraren araberako ordainsari bat, zuzenean erabiltzaileengandik edo Administrazioarengandik jasoko duena.

6.- Itundutako kontraprestazio ekonomikoak —tarifa deituko zaie eta zergaz kanpoko ondare prestazio publikoak izango dira— berrikusi egingo dira, kasua bada, kontratuan ezarritako moduan; kontratua, nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen lehen liburuaren III. tituluaren II. kapituluan ezarritakoari egokituko zaio; sektore publikoko erakundeen kontratuen prezioak berrikusteari buruzkoa da kapitulu hori.

7.- Emakidadunak bereizita eramango du emakidaren sarreren eta gastuen kontabilitatea, eta bereizita jasoko dira, orobat, ekarpen publikoetatik datozen diru sarrerak eta hitzartutako kontraprestazioetatik eratorritakoak. Kontabilitate hori Administrazioaren esku egongo da.

8.- Adjudikazioduna izango da zerbitzuaren xede diren prestazioen kalitatearen erantzule, bai eta kontratua gauzatzean ez-egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio desegokiek Administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioen erantzule ere.

9.- Pertsona edo enpresa emakidadunak ekipo eta giza baliabide egokiekin eman beharko du zerbitzua, eta une oro erantzun beharko die lanen martxak dakartzan beharrei. Berak emango ditu, orobat, proposamenean jasotako baliabide teknikoak eta, oro har, lanak behar bezala egiteko behar direnak.

10.- Emakidadunak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, kalteen erantzukizuna estaltzeko. Enpresa adjudikaziodunak kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, baita kontratua sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere. Gainera, ezaugarrien taulako **24. atalean** hala ezartzen bada, adierazitako estaldurak ziurtatu beharko ditu, eta izan beharko ditu, orobat, zehazten diren aseguru gehigarriak.

Nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu kalte-galerak, aseguru polizetan ezarritako mugak gainditzen dituzten heinean, bai eta poliza horiek estaltzen ez dituzten ondasun eta arriskuetan ere.

11.- Administrazioak erabakiko du emakidadunak ondo eman ote duen prestazioa, hau da, bete ote dituen kontratua egikaritzeko eta betetzeko jarritako baldintzak; beharrezkoa bada, kontratatutako prestazioak eman daitezen eskatuko du, eta, prestazioak jaso dituenean akatsik ikusi badu, akatsak zuzen daitezen. Baldin eta kontratistak ez baditu lanak hitzartutako prestazioaren arabera egin, eta akatsak edo hutsegiteak emakidadunari egotzi ahal bazaizkio, Administrazioak ezetsi egin ditzake lanak, eta ez du izango haiek ordaintzeko betebeharrik, edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

12.- Zerbitzua emateko beharrezko obra edo instalazio finkoak egitea dakarrenean bakarrik hipotekatu ahal izango da emakida, eta emakidarekin zerikusia duten zorren berme gisa bakarrik.

13.- Enpresa emakidaduna beharturik egongo da nazionalitateagatik inor ez diskriminatzeko printzipioa errespetatzera, baldin eta zerbitzu emakidaren ondorioz hornidura kontratua egin behar badu Europar Batasuneko estatuetako enpresekin edo Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatuta daukaten estatuetako enpresekin.

14.- Lizitazioan parte hartzen duten enpresek borondatez onartzen dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio, adjudikazio eta exekuzio prozesuetatik eratorritako datu guztiei, harik eta amaitu arte.

### 38.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

1.- Kasuak hala eskatzen badu, aurrekontu ekitaldi bakoitzeko abenduaren lehenengo hamabostaldian eta, kasu guztietan ere, kontratua jaso aurreko hilabetean, enpresa

emakidadunak, **X. eranskinaren** arabera, adjudikazio irizpideen eta kontratua gauzatzeko baldintza berezien ebaluazioa aurkeztu beharko du.

2.- Kontratuaren parte diren gauzatze baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie kontratua egikaritzeko parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

3.- Ezaugarrien taulako **20. atalean** aurreikusitakoez aparte, hauek dira kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:

**38.2.1.- Lan arloarekin, gizarte alorrarekin eta ingurumena babestearekin loturiko betebeharrak**

1.- Emakidadunak nahitaez bete beharko ditu indarrean dauden lege, erregelamendu eta hitzarmen xedapenak, aplikatzekoak baitira lan arloan, gizarte segurantzan, laneko segurtasun eta osasunean eta ingurumena babestearen alorrean, eta bete beharko ditu, orobat, baldintza agiri honetan ezarritakoak ere.

2.- Emakidadunak bere jarduerari dagokion sektoreko azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako lan baldintzak aplikatuko dizkio kontratua gauzatuko duen plantillari, hargatik eragotzi gabe indarrean dauden eta hitzarmen kolektibo horretan xedatutakoa hobetzen duten beste hitzarmen edo enpresa itun batzuk bete beharra.

3.- Kontratua gauzatzeko aldi osoan, enpresa emakidadunak nahitaez eutsi beharko die kontratuari atxikitako langileen lan baldintzei, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak ezartzen duenari jarraikiz, eta ez ditu baldintza horiek okertuko; hori guztia kontuan harturik hitzarmen horrek indarra gal dezakeela, hitzarmen kolektiboen indarraldia amaitzeari buruzko lege edo hitzarmen aurreikuspenak aplikatuz. Eginbeharra betetzat joko da, baldin eta eusten bazaie indarrean dauden lan baldintzei indarraldi galera gertatu aurreko unean. Nolanahi ere, lan baldintzei eusteko eginbeharra betetzat joko da, baldin eta baldintza horiek aldatu egin badira enpresa emakidadunaren eta langileen ordezkaritzaren artean lortutako akordioaren bidez; nolanahi ere, soldata baldintzak ezingo dira izan inola ere txikiagoak, aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritakoak baino. Emakidadunak alderdi horiek egiaztatzeko eskatzen zaion edozein informazio edo dokumentazio eman beharko dio kontratazio organoari.

4.- Emakidadunak adierazi beharko du zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei. Horretarako, kontratu horri atxikitako langileei adjudikatu ondoren aplikatzen zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman beharko du.

5.- Atxikitako langileen lan baldintzetan adjudikazioaren unean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritakoari edozer aldaketa eraginez gero, jakinaren gainean jarri beharko da aldez aurretik kontratazio organoa. Komunikazioan, negoziazioa justifikatzen duen dokumentazioa, lan baldintza berrien edukia eta horrek kontratuaren kostuen egituran izango duen berehalako eta etorkizuneko ondorio ekonomikoa jaso beharko dira.

6.- Azpikontratazioaren kasuan, enpresa azpikontratistak klausula honetan xedatutakoa bete beharko du. Enpresa emakidadunak azpikontratatutako jarduera hasi baino lehen egiaztatuko du azpikontratatutako enpresetako langileak afiliatuta eta alta emanda daudela Gizarte Segurantzan, eta jakinaren gainean jarriko du kontratazio organoa.

7.- Enpresa emakidadunak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea kondenatuko balitz horren ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek emakidadunari jasanaraziko zaizkio, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak berea izango du egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial gauzatzeko ahala, harik eta erabat berreskuratu arte ordaindutako zenbatekoak.

**38.2.2.- Kontratua gauzatu behar duten langileen betebeharrak**

1.- Adjudikaziodun gisa proposatutako enpresak, kontratatutako jarduera hasi aurretik, kontratua gauzatzeko erabiliko dituen langileen zerrenda aurkeztu beharko du, eta egiaztatu beharko du alta emanda eta afiliatuta daudela Gizarte Segurantzan.

Bestela, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, adieraziz egun horretan ez dauzkala kontratatuta kontratua gauzatzeko ardura izango duten pertsonak, eta adieraziko du ezen, kontratatzen dituenean, guztiak afiliatuta eta alta emanda egongo direla, betiere kontratatutako jarduera hasi aurretik.

2.- Enpresak, kontratuaren xedeari atxikiko zaizkion langile berriak kontratatzen dituenean, informazio eta dokumentazio hau eman beharko dio erakunde kontratatzaileari:

- Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta edukitzea langileak.
- Kontratu modalitatea, kontratuaren xedea, lanbide kategoria edo taldea, eta lanaldia.
- Urteko soldata gordina (ordainsari kontzeptuen arabera banakatuta).
- Kasuak hala eskatzen badu, hitzarmen kolektibo aplikagarria eta indarrean dauden itun aplikagarriak.
- Kasuaren arabera, gaitzen dituen titulazio akademikoa.

3.- Enpresa emakidadunak hilero bidaliko dio kontratuaren arduradunari kontratuari atxikitako langile guztien eta kontratuari lotutako gainerako pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda, eta bidaliko dizkio, orobat, langileen soldatak eta Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu izanaren egiaztagiriak.

4.- Kontratua ezarritako baldintzetan betetzen ari dela egiaztatzeko, kontratazio organoak beharrezkoa eta egokia den, gehiegizkoa ez den eta datuen kalitatearen printzipioari egokitzen zaion informazio pertsonala soilik eskuratu ahal izango du, eta, ildo horretan, beti bete beharko ditu datuen babesaren arloko legeriak eskatzen dituen printzipioak.

5.- Enpresa emakidadunak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea kondenatuko balitz horren ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek emakidadunari jasanaraziko zaizkio, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak berea izango du egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial gauzatzeko ahala, harik eta erabat berreskuratu arte ordaindutako zenbatekoak.

**38.2.3.- Subrogazio kasuetako betebeharrak**

1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 130. artikuluan aurreikusitako informatzeko betebeharra aplikatuz, ezaugarrien taulako **25. atalean** subrogazioak eragindako langileen kontratu baldintzei buruzko informazioa ematen da; hala, enpresa lizitatzaileek aukera izango dute kontratuaren adjudikaziodun izanez gero edukiko dituzten benetako lan kostuen ebaluazio egokia egiteko.

Informazio horren artean sartzen dira, hain justu, subrogazioaren xede diren langileen zerrenda, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, lan kategoria, kontratu mota, antzinatasun data, lanaldia, kontratuaren epemuga, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, subrogazioak eragindako langileei aplika dakizkiekeen indarreko itunak, eta, nahitaezkoa denean, titulazio akademikoa.

2.- Kontratua enpresa berriari adjudikatu ondoren, baina kontratua gauzatzen hasi aurretik, zerbitzua uzten duen enpresak ziurtagiri bat emango dio adjudikaziodun berriari. Ziurtagiri horretan alderdi hauek jasoko dira: langileen izena, jaioteguna, edozein motatako kobrantza guztien zenbatekoa (ordainsari kontzeptuaren arabera banakatuta), antzinatasuna, kontratu modalitatea, kontratua mugaegun aurreikusia, lanaldia, kategoria edo lanbide taldea, eta indarrean dauden eta aplikatzekoak diren itun guztiak. Halaber, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri bat aurkeztuko du, egiaztatzen duena ordainduta dauzkala Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, bai eta ordaindu beharreko zati proportzionalen

likidazioaren ordainagiriak ere. Era berean, adjudikaziodun berriaren esku jarriko ditu hark egokitzat jotzen dituen agiriak, hori guztia egiazkoa dela egiaztatzeko.

Enpresak langileen ordezkariak dituen kasuetan, ziurtagiriarekin batera enpresak aurreko apartatuan adierazitako datuei buruz gutxienez emandako txostena aurkeztu beharko da.

3.- Subrogazioa egin ondoren, lan kostuak handiagoak badira emakidadun ohiak kontratazio organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, emakidadun berriak zuzeneko ekintza izango du emakidadun zaharraren aurka.

4.- Zerbitzua uzten duen emakidadunak izango du erantzukizuna subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldatei dagokienez, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioena ere, kontratua suntsiarazten bada eta langileak emakidadun berriak subrogatzen baditu ere, eta betebehar hori ez dagokio inola ere emakidadun berriari (nola eta subrogazioa ez den gertatu Langileen Estatutuaren 44. artikulua aplikatuz). Horretarako, erakunde kontratatzaileak, soldata horiek ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, zor diren diru zenbatekoak atxikiko dizkio emakidadunari, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta soldatak ordaindu direla frogatu arte.

5.- Enpresa emakidadunak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea kondenatuko balitz horren ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek emakidadunari jasanaraziko zaizkio, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak berea izango du egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial gauzatzeko ahala, harik eta erabat berreskuratu arte ordaindutako zenbatekoak.

**38.2.4.- Gauzatzeko hizkuntza betebeharrak**

1.- Kontratu hau Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarritako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago, eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen jarduera eremuan euskararen erabilera normalizatzeko indarrean dagoen Planak arautzen dute.

2.- Ezaugarrien taulan besterik adierazten ez bada, enpresa adjudikaziodunak bi hizkuntza ofizialetan emango ditu kontratuaren xede diren azterlanak, txostenak, proiektuak edo bestelako lanak, baita softwareen testu eta soinu interfazeak ere.

3.- Diseinu eta jarduera guztiak (errotuluak, argitalpenak, seinaleztapenak, abisuak eta komunikazioak barne) bi hizkuntza ofizialetan planteatuta egin behar dira, euskaraz eta gaztelaniaz, salbu eta, proposatzen den ekintzaren ezaugarriak eta herritar segmentuaren arabera, euskara lehentasunez erabiltzea komeni den kasu zehatzetan, betiere herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea babestuz.

4.- Euskararen erabilera bermatuko da errotulu, seinaleztapen, abisu eta komunikazioetan eta, oro har, solaskidetzan.

5.- Kontratua gauzatzean hirugarrenekin edo, oro har, herritarrekin harremanak izatea dakarten kontratuetan, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta kontratua gauzatzeko harremanetan jarriko diren pertsonen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioan erabiltzaileak edo hirugarren pertsonak aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da. Berariaz aukerarik agertzen ez denean, adjudikazioaren ardura duen enpresak pertsona fisiko edo juridikoei zuzentzen dizkien era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira; nolanahi ere, herritarrak edozein unetan baliatu ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea, eta eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

**38.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko obligazioak**

1.- Enpresa adjudikaziodunak, kontratua gauzatzean, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarri beharko ditu, enplegua lortzeari, sailkapen pertsonalari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, ordainsariei, lan kalitateari eta egonkortasunari,

lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari dagokienez, bai eta kontratua gauzatzeari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzen dutenak ere, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

2.- Enpresa adjudikaziodunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan; saihestu egin beharko ditu emakumeen irudi diskriminatzaile guztiak edo estereotipo sexistak, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero rol eta identitateen pluraltasunaren balioak sustatu beharko ditu bere irudian.

3.- Enpresa edo erakunde adjudikaziodunak bermatuko du hartuko direla lanean sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak, hamar langile baino gehiago behar dituzten kontratuetan.

**38.2.6.- Azpikontratazio kasuetako betebeharrak**

1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 296. artikuluan ezarritakoaren arabera, azpikontratazioa prestazio osagarrien gainekoa baino ezingo da izan.

2.- Azpikontratuak egiteko, betekizun hauek bete behar dira:

a) Adjudikaziodunak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenik ere, kontratua gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa. Ildo horretan, alderdi hauek adieraziko dizkio: azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia, azpikontratisten nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariak, azpikontratistek azpikontratatu nahi diren prestazioaren zatiak gauzatzeko duten gaitasuna justifikatzeko agiriak, eta Administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez dutela dioten agiriak.

   Proposatutako enpresa azpikontratista Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko gaitasungabetze eta debekuetan sartuta ez dagoela egiaztatzeko, enpresa emakidadunak, aurreko apartatuan adierazitako dokumentazioarekin batera, nahitaez aurkeztu beharko du horrekin loturik azpikontratistak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena.

   Eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak, eskaintzan izenez adierazitakoez bestelako enpresekin egiten direlako edo eskaintzan adierazitakoez bestelako prestazio parteei buruzkoak direlako, ezin izango dira formalizatu harik eta hogei egun natural igaro arte jakinarazpena egiten denetik eta azpikontratistak hura gauzatzeko gaitasun justifikazioak aurkezten dituenetik, betiere erreferentzia eginez eskura dituen elementu teknikoei eta giza elementuei eta bere esperientziari, salbu eta aurretik berariaz baimendu badira eta Administrazioak ez badu jakinarazi azpikontratazio horren aurka dagoela, betiere horretarako epearen barruan. Araubide hori aplikatuko da, era berean, azpikontratistak lanbide profila deskribatuz identifikatu badira eskaintzan.

b) Hogei eguneko epea igaro gabe ere egin ahalko dira azpikontratuak, betiere enpresa emakidadunaren erantzukizunaren pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presako neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

c) Isilpeko kontratuak edo kontratu erreserbatuak direnean, edo lege edo erregelamendu xedapenen arabera edo Administrazioaren segurtasunaren funtsezko interesak babestu beharrak hala eskatuta segurtasun neurri bereziz babestuta egikaritu beharrekoak direnean, kontratazio organoaren berariazko baimena beharko da beti azpikontratazioa egiteko.

3.- Azpikontratistak enpresa emakidadunaren aurrean bakarrik izango dituzte betebeharrak, eta, beraz, enpresa emakidadunak hartuko du bere gain Administrazioaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, baldintza partikularren agiriek eta kontratuaren baldintzek diotenari estu jarraikiz, barnean harturik ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak bete

beharra, bai eta datuak babesteari buruzko Estatuko eta Europar Batasuneko araudia betetzeko obligazioa ere.

Ez dute enpresa emakidadunaren erantzukizun esklusiboa aldatuko ez Administrazioak aurreko 1. apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren komunikazioei jarraikiz eginiko azpikontratuen berri izateak, ez apartatu horretako bertako c) letran aurreikusitako kasuan ematen duen baimenak.

4.- Emakidadunak ezingo du inola ere egin kontratu zati bat egikaritzeko itunik ordenamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotako egoeretako batean dauden pertsonekin.

5.- Enpresa emakidadunak jakinaren gainean jarri beharko ditu azpikontratazioari atxikitako langileen ordezkariak, lan legeriak dioenari jarraikiz.

6.- Enpresa edo erakunde adjudikaziodunak azpikontratuaren agiria aurkeztu beharko dio kontratazio organoari. Agiri horretan zehaztuko dira, hain justu ere, enpresa edo erakunde azpikontratistak kontratu honetan aurreikusitako klausulei dagokienez dituen betebeharrak eta horiek ez betetzearen ondorioak.

7.- Azpikontratistei egin beharreko ordainketak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 216. artikuluan eta merkataritza eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutakora egokitu beharko du.

8.- Administrazioak egiaztatu ahal izango du emakidadunak zorrotz betetzen direla kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak.

Horretarako, emakidadunak, Administrazioak hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehatua bidaliko dio Administrazioari, haien partaidetza burutzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazio edo hornidura baldintzak ere, baldin eta zuzeneko lotura badute ordainketa epearekin.

Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa epeak bete izanaren egiaztagiria emango dio Administrazioari, hark eskatzen dionean.

**38.2.7.- Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko betebeharrak**

1.- Enpresa emakidadunak laneko segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, bai eta hitzarmen kolektibo aplikagarritik eratorritakoak ere.

2.- Enpresa emakidadunak nahitaezko edo beharrezko laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu, kontratuaren xede diren langileen osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak zorrotz prebenitzeko.

3.- Kontratuaren xedea dela-eta beharrezkoa denean emakidadunaren langileek (edo, kasuaren arabera, azpikontratistaren langileek) esku hartzea eta zerbitzuren bat ematea Administrazio kontratatzailearen zentroetan, kontuan izanik zentro horietan Administrazioko langileek ere ematen dituztela zerbitzuak, enpresa eta langile autonomo guztiek lankidetzan jardun beharko dute jarduera hasi aurretik eta, horrekin batera, dagokion informazioa trukatu beharko dute garatuko dituzten jarduerek langileei eragin diezaieketen arrisku espezifikoei buruz. Enpresek beren langileei jakinaraziko diete zer arrisku sor daitezkeen jarduerak aldi berean egitean, eta beharrezko eta egoki diren koordinazio bitartekoak ezarriko dituzte. Horretarako, kontuan hartuko da jasotako informazioa, laneko arriskuen ebaluazioan eta dagozkion prebentzio jardueren plangintzan.

Kasu horietan, enpresa jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, dokumentazio hau aurkeztu beharko da jarduera hasi aurretik:

a) Kudeaketa prebentiboko dokumentua, baita hartu beharreko prebentzio neurriak ere.
b) Egin beharreko lanei dagokien prebentzio jarduera planifikatzea.
c) Emakidadunak eta, kasuaren arabera, azpikontratistak sinaturiko jaso agiria, egiaztatzen duena Administrazio kontratatzaileak eman diela lantokiaren eta haren instalazioen

berezko arriskuen gaineko informazioa, eta eman diela, orobat, arrisku horiek prebenitzeko neurrien eta jarraibideen gaineko informazioa, kontuan izanik nahitaez aplikatu beharrekoak direla larrialdi egoeretan.

d) Hartutako prebentzio antolamenduaren modalitatea. Kanpoko prebentzio zerbitzuaren kasuan, prebentzio zerbitzuarekin egindako kontratuaren kopia erantsi beharko da —Segurtasuna, Higienea, Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatua, eta Osasunaren Zaintza izango dira kontratutako espezialitateak—, bai eta ordainagiria edo egun indarrean dagoela adierazten duen ziurtagiria ere.

e) Kontratua gauzatuko duten langileen zerrenda eta kontratuaren xederako erabiliko diren makinak.

f) Kontratua gauzatuko duten langileek kontratatutako lanak egiteko gaitasun medikoa egiaztatzeko agiriak.

g) Kontratua gauzatuko duten langileei prebentzioaren arloan emandako prestakuntzaren eta informazioaren egiaztagiria, barnean hartuta lantokiaren eta haren instalazioen berezko arriskuei buruz jasotako informazioa, arrisku horiek prebenitzeko prebentzio neurriak eta jarraibideak, bai eta larrialdi kasuetan aplikatu beharrekoak ere.

h) Norbera babesteko ekipamenduak (NBEak) entregatu izanaren egiaztagiria.

i) Enpresak bere makineria eta lan ekipoak aurkezten baditu, aurkeztu beharrekoak izango dira adostasun adierazpena, CE marka, edo langileek laneko ekipamenduak erabiltzearen inguruko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei eta horiek erabiltzeko jarraibideen liburua ezartzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretura egokitzea. Era berean, horiek erabili behar dituzten langileek prestakuntza espezifikoa jaso dutela eta erabiltzeko baimena dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.

j) Produktu kimikoen segurtasun fitxak, enpresa emakidadunak edo azpikontratistak produktu kimikoak baliatu behar dituenean.

k) Segurtasun eta osasun arauak betetzen direla bermatuko duen pertsonaren nortasuna ezagutaraztea, eta administrazio kontratatzaileko langileekin koordinatzeko bitartekoak ezartzea. Prebentzio baliabide egokiak eskura jartzea, beharrezkoak direnean.

Enpresa emakidadunak kontratuaren xedearen parte bat beste enpresa batekin azpikontratatzen duenean, enpresa emakidadunak azpikontratistari (autonomoei) eskatu beharko dizkio klausula honetan aurreikusitako egiaztapenak, administrazio kontratatzaileari entregatzeko.

Bereziki, enpresa azpikontratistak zaindu behar du betetzen dituela laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko betebehar guztiak, eta, zehazki, betetzen duela araudiak prebentzio jardueren koordinazioari eta prebentzio baliabideak eskura jartzeari buruz aurreikusten duena, beharrezkoak direnean.

Enpresa emakidadunak bermatu beharko du azpikontratatuak badituela azpiegitura eta baliabide egokiak jarduera gauzatzeko eta zuzenean lanen zuzendaritzan aritzeko.

Erakunde kontratatzaileak zainduko du emakidadunek eta azpikontratistek betetzen dutela laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia, eta, horretarako, helburu horrekin bat datorren edozein neurri hartu ahal izango du.

4.- Kontratuaren xedearen izaeragatik erakunde kontratatzailearen zentroetan prestazioren bat egin behar duen emakidadunaren langileek parte hartu behar badute (edo, kasuaren arabera, azpikontratistarenek), ezin izango zaio ekin kontratuaren xede den jarduerari, nola eta administrazio kontratatzaileak ez dituen egin jarduketa hauek aldez aurretik:

- Egindako jardueretan eragina izan dezaketen lantokiko arriskuen berri ematea parte hartzen duten enpresei, bai eta arrisku horien prebentzio neurrien berri ematea ere.
- Enpresa emakidadunari larrialdi neurrien berri ematea.

Lantoki horretan enpresa bateko baino gehiagoko langileak elkartu behar direnean, jarduera hasi aurretik, enpresa jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua

betez, enpresa eta langile autonomo guztiek lankidetzan jardun beharko dute, eta informazioa trukatu beharko dute garatuko dituzten jardueren arrisku espezifikoei buruz, baldin eta arrisku horiek parte hartzen duten beste enpresetako langileei eragin badiezaiekete. Enpresek beren langileei jakinaraziko diete zer arrisku sor daitezkeen jarduerak aldi berean egitean, eta beharrezko eta egoki diren koordinazio bitartekoak ezarriko dituzte. Horretarako, kontuan hartuko da jasotako informazioa, laneko arriskuen ebaluazioan eta dagozkion prebentzio jardueren plangintzan.

Jarduera hasi aurretik, emakidadunak eta, kasuaren arabera, azpikontratistak agiri bat aurkeztu beharko dute sinatuta, adieraziz jaso dutela administrazio kontratatzaileak lantokiaren eta haren instalazioen berezko arriskuei buruz emaniko dokumentazioa, bai eta garatutako jardueretan eragina izan dezaketen lantokiko arriskuei buruzkoa eta arrisku eta larrialdi horiei aurrea hartzeko neurrien gainekoa ere.

5.- Kontratuari atxikitako emakidaduneko (edo, kasuaren arabera, azpikontratistako) langileek ez badute zerbitzurik ematen erakunde kontratatzailearen zentroetan, baina haren makinak, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo lanabesak erabiltzen badituzte, Administrazioak beharrezko informazioa emango dio enpresa emakidadunari edo azpikontratistari jarduera hasi aurretik, makinak, ekipoak, produktu kimikoak, lehengaiak edo lanabesak erabiltzeko eta manipulatzeko, eta, era berean, enpresa emakidadunak edo azpikontratistak, jarduera hasi aurretik, agiri bidez egiaztatu beharko du kontratua gauzatuko duten langileek badituztela beharrezko informazioa eta prestakuntza Administrazio kontratatzaileak emandako makinak, ekipoak, produktu kimikoak, lehengaiak edo lanabesak erabiltzeko eta manipulatzeko, eta adieraziko dute, orobat, ezagutzen dutela Administrazioak emandako informazioa.

6.- Enpresa emakidadunak edo azpikontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea kondenatuko balitz horren ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek emakidadunari jasanaraziko zaizkio, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak berea izango du egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial gauzatzeko ahala, harik eta erabat berreskuratu arte ordaindutako zenbatekoak.

**38.2.8.- Enpresa emakidaduneko langileekiko betebeharrak**

1.- Enpresa emakidadunari bakarrik dagokio baldintza agirietan eskatzen diren titulazio eta esperientzia baldintzak betetzen dituzten langileak hautatzea (titulazio eta esperientzia baldintza espezifikoak ezartzen diren kasuetan), kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldeko kide izateko, hargatik eragotzi gabe kontratazio organoak egiaztatu ahal izatea betetzen ote diren baldintza horiek.

2.- Enpresa emakidaduna lantaldean egonkortasuna izaten saiatuko da, osaeran izandako aldaketak puntualak eta justifikatutako arrazoien ondorio izan daitezen, guztia ere zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko (eskakizun hori justifikatzen duten arrazoiak ageri direnean), eta une oro jakinaren gainean edukiko du kontratazio organoa, administrazio klausula partikularren baldintza agirian ezarritako baldintzetan.

3.- Enpresa emakidadunak konpromisoa hartzen du enpresaburu orok bere langileekiko berezko duen zuzendaritza aginpidea modu erreal, eraginkor eta etengabean gauzatzeko, eta bere gain hartzen ditu zenbait ahal eta eginbehar —negoziazioa; soldatak ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak; lan arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak; diziplina zehapenak ezartzea, kasuak hala eskatzen badu; bai eta Gizarte Segurantzan sortzen diren ondorio guztiak ere, bereziki kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea, eta, oro har, enpresa enplegu emailearen eta haren langileen arteko kontratu harremanaren ondoriozko eskubide eta betebehar guztiak—.

4.- Enpresa emakidadunak bereziki zainduko du kontratua egikaritzeari atxikitako langileek kontratuaren baldintzen agirian zehaztutako lanak baino ez dituztela egiten, beren eginkizunetatik harago jo gabe.

5.- Enpresa emakidadunak gutxienez pertsona bat izendatu beharko du, bere enpresako plantillako koordinazio teknikoaz arduratzeko. Pertsona horrek eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

a) Bere enpresaren eta erakunde kontratatzailearen arteko solaskide gisa jardutea, komunikazioa bideratu ahal izateko, alde batetik, enpresaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen, eta, bestetik, Administrazio kontratatzailearen artean, kontratua gauzatzearen ondorioz sortzen diren gaiei loturik.

b) Kontratua egikaritzeko ardura duten langileen artean lana banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko behar diren aginduak eta lan jarraibideak ematea.

c) Lantaldeko langileek esleituta dauzkaten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.

d) Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen opor araubidea antolatzea; horretarako, enpresa emakidadunak behar bezala koordinatu beharko du administrazio kontratatzailearekin, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez nahasteko.

e) Erakunde kontratatzaileari informazioa ematea kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran gertatzen diren noizbehinkako aldaketei edo aldaketa iraunkorrei buruz, **38.2.2 klausulan** jasotako baldintzetan.

6.- Enpresa emakidadunak bere bulego edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, nola eta ez dagoen aurreikusita baldintza agirian erakunde kontratatzailearen bulegoetan zerbitzuak emateko eginbeharra eta ez den eman berariaz horretarako baimena. Kasu horretan, Administrazio kontratatzaileak lan espazioak jarriko ditu enpresa emakidadunaren esku, langile publikoek baliatzen dituztenetatik bereizita, eta enpresa emakidadunari egokituko zaio zaintzea bere langileek esleitutako kokalekuan ematen dituztela zerbitzu horiek.

7.- Enpresa emakidadunak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea kondenatuko balitz horren ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek emakidadunari jasanaraziko zaizkio, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak berea izango du egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial gauzatzeko ahala, harik eta erabat berreskuratu arte ordaindutako zenbatekoak.

### 38.3.- Informazioaren segurtasunaren arloko betebeharrak

1.- Emakidadunak eta haren zerbitzuko langileek isilpekotzat jo beharko dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak edo kontratua gauzatzean eskuratu diren informazio, datu edo zehaztapenak, eta ezin izango dira argitaratu, kopiatu, erabili edo laga, ezta hirugarren pertsonei maileguan eman ere, ez osorik, ez partzialki, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 133.2 artikuluak zehazten duenari jarraikiz. Betebehar horiek erakunde kontratatzailearekin harremanak amaitu ondoren ere iraungo dute.

2.- Adjudikazioduna beharturik dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren Informazioaren Segurtasunerako Politika (2017ko azaroaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua) eta zerbitzu edo informazio horiekin lotutako segurtasun araudia betetzera, baita bere langileei informazioa eta prestakuntza ematera ere.

3.- Baldin eta, ezaugarrien taulako **16. atalaren** arabera, kontratua gauzatzeko beharrezkoa bada emakidadunak datu pertsonalak tratatzea tratamenduaren arduradunaren kontura:

a) Ezaugarrien taulan adieraziko da tratamenduaren helburua. Emakidadunak ezingo ditu erabili datu horiek zehaztutakoez bestelako helburuetarako. Baldin eta emakidadunak beste helbururen batekin erabiliko balitu datuak, edo kontratuan edo indarrean den araudian ezarrita dagoena bete gabe jakinarazi edo erabiliko balitu, tratamenduaren organo arduraduntzat hartuko litzateke kontratista ere, eta gaizki egindako arau hausteen erantzule izango da.

b) Emakidaduna beharturik egongo da datuen babesari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa errespetatzera, baita erakunde kontratatzaileak adierazitako jarraibideak betetzera ere.

c) Emakidadunak, kontratua formalizatu aurretik, zerbitzariak non dauden eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazi beharko du. Horri dagokionez, behar bezala jakinarazi beharko da kontratuaren bizitzan zehar gertatzen den edozein aldaketa.

d) Emakidadunak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, bai eta datu horiek suntsitzea, galtzea edo aldatzea edo baimenik gabe jakinaraztea edo eskuratzea saihesteko ere.

e) Emakidadunak, kontratu prestazioa amaitzean, suntsitu egin beharko ditu datu pertsonalak, edo itzuli egin beharko dizkio erakunde kontratatzaileari edo hark izendatutako beste pertsona bati.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letran aurreikusitakoaren arabera, ezinbesteko obligazioa da apartatu honetako a), b) eta c) letretan adierazitakoa, eta nahitaezko obligazioa da, orobat, adieraztea, ezaugarrien taularen **17. atalaren** arabera, eskaintzan zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duten ala ez, eta zerbitzu horiek beren gain hartuko dituen enpresaren izena edo profila, kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen erreferentziaren arabera definitua. Gauzatzeko baldintza berezitzat hartuko dira d) eta e) apartatuetan aipatzen diren betebeharrak.

4.- Adjudikaziodunak baimena emango dio erakunde kontratatzaileari egoki iritzitako kontrolak egin ditzan kontratua indarrean dagoen bitartean, segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta neurri zuzentzaile egokiak hartu ahal izateko.

5.- Enpresa emakidadunak edo azpikontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea zenbatekoren bat ordaintzera kondenatzen bada, emakidadunari jasanaraziko zaio ordaindutako zenbatekoa, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak berea izango du ordaindutako zenbatekoak erabat berreskuratu arte egokiak eta komenigarriak diren edozein ekintza administratibo edo judizial gauzatzeko ahala.

### 38.4.-Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta erakunde zuzentasunaren esparrua betetzeari buruzko obligazioak

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du kontratazio publikoaren alorreko jardueretan nagusi izan behar duten balio etikoak eta jokabide arauak txertatzea, baita kudeaketa oneko printzipioak eta jokabide profesionaleko arauak ere.

2.- Hori guztia kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauak 16. kontuan hartuzkoan aurreikusitakoaren arabera, zeinak botere publikoak behartzen baititu ahalegin guztiak egitera kontratazio publikoko prozedurak ez daitezen gerta interes gatazken eraginpean. Eta bereziki azpimarratzen duenez, “interes gatazkak hauteman, ekidin eta konpontzea helburu duten prozedurak erabiltzea ekar dezake”.

Horregatik, prozedura honen osotasuna bermatze aldera, **VI. eranskin** gisa jaso da Gipuzkoako Foru Administrazioaren kontratazio publikoari aplika dakiokeen Jokabide Kodea eta Erakunde Zuzentasunaren Esparrua betetzen direla adierazteko eredua.

3.- Kode hori, funtsezko eginbidea izaki, nahitaez bete behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko lizitazioetan lehiatuko diren enpresa eta entitateek eta haien adjudikaziodunek. Ez betetzeak bide emango dio kontratazio organoari kodearen aurkako jarduera burutu duen enpresa edo entitatea baztertzeko edo, kasuak hala eskatzen badu, ez-betetze kulpadunagatik kontratua deuseztatzeko, erregelamenduz ezarritako ondorioekin.

4.- Ez bada bidezkoa kontratua deuseztatzea, zehapen bat jarriko da, eta arau hauste astuntzat hartuko da jokabide kodea betetzen ez den bakoitzean. Horrek dagokion zehapena ekarriko du, zeina kontratuaren aurrekontuaren % 10ekoa ere izan ahalko baita.

5.- Zigorrak jartzeko prozedurak kontraesan eta zigorraren mailakatze printzipioak hartuko ditu kontuan, proportzionaltasuna eta loturiko gorabeherak aintzat harturik.

### 38.5.-Baimenak eta lizentziak kudeatzeko betebeharrak

1.- Enpresa emakidadunaren kontura eta haren erantzukizuna izango da, nola eta kontratazio organoak ez duen erabakitzen bere kabuz kudeatzea, lanak behar bezala egiteko behar diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea, eta, horretarako, erakunde eskudunen baldintzak eta aginduak bete beharko ditu.

2.- Baimen edo lizentzia horiengatik tasak, fidantzak edo bestelako gastuak eskatzen direnean, enpresa emakidadunak ordaindu edo gordailutu beharko ditu horiek ere.

### 38.6.- Emakidadunari dagozkion betebeharrak

Emakidaduna Gipuzkoako Garraioko Arbitraje Batzordearen mende jarriko da, kontratua betetzean zerbitzuaren erabiltzaileekin sor daitekeen edozein eztabaidari dagokionez.

### 38.7.- Emakidadunari eska dakizkiokeen gastuak

Emakidadunaren kontura izango dira kontratua formalizatzeko gastuak, baldin eta eskritura publiko bihurtzen bada, bai eta kontratua gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak ere.

### 38.8.- Lan programa

1.- Administrazioak komenigarritzat jotzen badu lan programa bat eskatzea preskripzio teknikoen baldintza agirian ezarritakoaren arabera, adjudikaziodunak aurkeztu egingo du programa hori, Administrazioak ontzat eman dezan. Horrekin batera, aukeratutako soluzioaren agiriak onartuko dira, eta, kasuak hala eskatzen badu, dagozkion epe partzialak ezarriko dira.

2.- Kontratu baldintzak aldatzen diren bakoitzean, adjudikaziodunak eguneratu egin beharko du programa hau, horretarako jasotzen dituen jarraibideen arabera.

### 38.9.- Kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko baldintzak

1.- Egoera hauetakoren bat gertatuz gero, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarri beharko da, dagokion aldearen mesedetan:

a) Administrazioak, kontratuan aurreikusitako baldintzei jarraikiz, kontratua aldatzen duenean.
b) Administrazio publiko emakida emailearen jarduketek, emakidadunak bete beharrekoak izateagatik, kontratuaren ekonomiaren funtsa haustea eragiten dutenean zuzen-zuzenean.

2.- Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuetatik kanpo, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura ezinbesteko kausek zuzenean eragiten dutenean bakarrik berrezarri ahalko da kontratuaren oreka ekonomikoa. Ondorio horietarako, ezinbesteko kausatzat hartuko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 239. artikuluan zerrendatutakoak:

a) Atmosferako elektrizitateak sortutako suteak.
b) Hondamendiak eragiten dituzten naturako fenomenoak: itsasikarak, lurrikarak, sumendi-erupzioak, lur mugimenduak, itsasoko ekaitzak, uholdeak eta antzeko beste batzuk.
c) Gerra denboran indarkeriaz egindako triskantzak, lapurreta zalapartatsuak eta ordena publikoaren urratze larriak.

3.- Nolanahi ere, ez da izango oreka ekonomiko finantzarioa berrezartzeko eskubiderik Administrazioaren azterlanean edo —halakorik egin badu— emakidadunarenean eskaerari buruz jasotako aurreikuspenak ez betetzeagatik.

4. Kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko, kasu bakoitzean bidezkoak diren neurriak hartuko dira. Neurri horiek askotarikoak izan daitezke, hala nola erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak aldatzea, administrazio emakida-emaileak ordaindu beharreko ordainsaria aldatzea, emakidaren epea laburtzea eta, oro har, kontratuaren klausula ekonomikoetako edozein aldatzea. Era berean, lehen apartatuko b) letran eta bigarren apartatuan aurreikusitako kasuetan, kontratuaren epea luzatu ahal izango da, hasierako iraupenaren ehuneko 15 baino gehiago iraun gabe, eta legez aurreikusitako gehieneko iraupen mugak errespetatu beharko dira.

## 39.- Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzuak emateko kontratuei buruzko berezitasunak

1.- Emakida zerbitzu publiko batena baldin bada, Administrazioak bereak izango ditu zerbitzuok ondo dihardutela bermatzeko polizia ahalmenak.

2.- Enpresa emakidadunak betebehar hauek izango ditu: zerbitzua hitzartutako jarraitutasunarekin ematea eta erabiltzaileei zerbitzua erabiltzeko eskubidea bermatzea, ezarritako baldintzetan eta, kasuaren arabera, onartutako tarifetan jasotako kontraprestazioa ordainduta; zerbitzuaren ordena egokia zaintzea, dagozkion jarraibideak emateko aukerarekin, artikulu honetan aipatzen diren polizia ahalmenen kalterik gabe; zerbitzuaren garapenak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteen ordaina ematea, Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik sortutakoak izan ezik; eta, kasuak hala eskatzen badu, kontratuaren arabera nahitaez egin behar dituen obrak eta instalazioak kontserbazio eta funtzionamendu egoera egokian entregatzea.

3.- Kontratua zerbitzu publiko bati dagokionean, emakidadunarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik edo emakidadunak kontratua ez betetzeagatik zerbitzuan nahasmendu larria sortzen bada eta beste ezin bada konpondu bide batzuetatik, Administrazioak erabaki dezake hura bahitzea edo esku hartzea. Nolanahi ere, emakidadunak benetan sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio Administrazioari.

## 40.- Jabetza intelektualaren eskubideak

Kontratuaren xedea baldin bada jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea, administrazio kontratatzaileari lagako zaio eskubide hori.

## 41.- Kontratua aldatzea

1.- Kontratua formalizatu ondotik, kontratazio organoak interes publikoko arrazoiengatik bakarrik egin ahal izango ditu aldaketak kontratuan, baldin eta hala aurreikusten bada ezaugarrien taulako **22. atalean**, edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta mugekin.

2.- Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren arduradunak dagokion proposamena idatziko du, aldaketa horiek justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen dituzten dokumentuez osaturik. Aurreko apartatuan ezarritako prerrogatibari buruzko erabakiak hartzeko bideratzen diren prozeduretan, entzun egin beharko zaio emakidadunari.

3.- Ezaugarrien taularen **22. atalean** aurreikusitako aldaketak eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan jasotako kontratu aldaketekin bat datozen beste batzuk, baldin eta, banaka edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren % 20 gainditzen ez duten aldaketa badakarte (BEZa kanpo), nahitaezkoak izango dira emakidadunarentzat, eta kontratazio organoak hitzartu egin beharko ditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 191. eta 207. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 102. artikuluan aurreikusitako prozedura izapidetu ondoren. Hala, administrazio agiri batean

formalizatu beharko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153. artikuluan adierazitakoaren arabera, behin betiko bermea doitu ondoren, kasuak hala eskatuz gero.

4.- Emakidadunak eta kontratuaren arduradunak ezingo dute egin behar bezala onartu gabeko aldaketarik. Administrazioak behar bezala baimendu gabeko kontratu aldaketek enpresa emakidadunaren erantzukizuna sortuko dute, eta enpresa emakidadunak, kasuak hala eskatzen badu, berregin egin beharko du ukituriko zatia, inolako ordainketarik jasotzeko eskubiderik gabe.

5.- Kontratu baldintzak aldatzen diren bakoitzean, emakidadunak eguneratu beharko du lan programa.

### 41.1.- Aurreikusitako aldaketak

1.- Hala baldin badago aurreikusita, kontratu hau baldintza agiri honen ezaugarri taularen **22. atalean** zehaztutakoaren arabera aldatu ahal izango da, han ezarritako baldintzak, irismena eta mugak kontuan hartuta. Muga horiek ezingo dute gainditu hasierako prezioaren % 20.

2.- Aldaketak egiteko arrazoi bat baino gehiago aurreikusten badira, horietako bakoitzari buruzkoak izango dira inguruabarrak, baldintzak, irismena eta mugak.

### 41.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak

1.- Ezaugarrien taulako **22. atalean** aurreikusitakoez bestelako aldaketak egin ahal izango dira, baldin eta behar bezala justifikatzen bada Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan eta Lurreko Garraiobideen Antolamenduaren Legearen 75.3 artikuluan zehaztutako kasuren bat edo batzuk gertatzen direla, guztia ere 191. artikuluan araututako prozeduraren arabera, 207. artikuluaren berezitasunekin eta ezarritako prozedurarekin bat etorriz.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan ezarritakoaren kalte gabe, kontratua aldatu aurretik zehaztapen teknikoak idatzi dituen pertsonari entzun beharko zaio kasu horietan, baldin eta zehaztapen horiek kontratazio organotik kanpoko hirugarren pertsona batek prestatu baditu zerbitzuak emateko kontratu baten bidez; hala, gutxienez hiru egun naturaleko epea emango zaio egokitzat jotzen dituen oharrak egin ditzan.

### 41.3.- Kontratuaren oreka ekonomikoari eustea

1.- Aldaketekin kontratuaren finantza araubideari eragiten bazaio, konpentsazioa eman beharko zaio kasuan kasuko aldeari, eta, hala, kontratua adjudikatu zenean oinarrizkotzat hartutako baldintza ekonomikoen orekari eutsi ahalko zaio.

2.- Zerbitzuaren garapenari buruz Administrazioak hartutako erabakiek ekonomian eraginik ez badaukate, emakidadunak ez du eskubiderik izango horiek direla-eta inolako kalte-ordainik jasotzeko.

### 41.4.- Aldaketa araubidea

1.- Araubideari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 203. artikulutik 207.era bitartekoetan eta 191. artikuluan xedatutakoa beteko da, bai eta erregelamendu bidez xedatutakoa ere.

2.- Kasuak hala eskatzen badu, aplikatzekoa izango da, orobat, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 290. artikulua, kontratua aldatzeari eta haren oreka ekonomikoa mantentzeari buruzkoa.

## 42.- Emakidadunari egin beharreko ordainketak

1.- Ezaugarrien taulako **10. atalean** prozedura alternatibo bat aurreikusi ezean, kontratuaren prezioa aurreko hileko behin-behineko likidazio bat aurkeztu ondotik ordainduko da. Likidazio hori egindako zerbitzu kilometro kopuruaren arabera prestatuko da, Lurraldebusen softwarearen bidez justifikatuko da (gaur egun, Programa Kontratua), eta hilean egindako bidaiak egiaztatuko ditu.

2.- Ekitaldia amaitutakoan egingo da likidazioa, hurrengo urteko lehenengo lau hilabeteetan. Likidazio hori egingo da, alde batetik, egindako kilometroak eta lortutako diru sarrera errealak neurtuta eta, bestetik, zerbitzuaren kalitatea ebaluatuta eta eskariarekiko pizgarria/zigorra zehaztuta.

3.- Emakidadunak eskubidea izango du konturako ordainketak jasotzeko, kontratuaren xedean jasota dauden eta kontratua gauzatzeko prestaketa eragiketen zenbatekoagatik, betiere ezaugarrien taulako **27. atalean** adierazitako baldintzetan. Ordainketa horiek ziurtatu egin beharko dira, eta, horretarako, bermea jarri beharko da.

4.- Kontratuaren finantzaketan Foru Aldundiko bi departamentuk edo gehiagok parte hartzen badute, edo beste entitate edo erakunde batzuekin batera finantzatzen bada, finantzaketan konprometitutako alderdi bakoitzak kontratuan parte hartzen duten proportzioan ordainduko dio emakidadunari gauzatutako kontratua, ezaugarrien taulako **6. atalean** jasota bezala eta ezaugarrien taulako **10. atalean** adierazten den ordainketa aginduari jarraikiz.

5.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 200. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta han ezarritako baldintzetan, emakidadunek kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea laga ahal izango diote hirugarren bati, legez ezarritako edozein bide erabiliz. Lagapen horrek ondorioak izan ditzan, eta Administrazioak lagapen hartzailearen aldeko ordainketa agindua eman dezan, ezinbesteko baldintza izango da lagapen erabakia Administrazioari modu frogagarrian jakinaraztea.

## 43.- Emakida bahitzea edo emakidan esku hartzea

1.- Kontratazio organoak, emakidadunari entzun ondoren, emakida bahitzea edo emakidan esku hartzea erabaki ahal izango du, baldin eta emakidadunak, aldi baterako eta kalte sozial larriarekin, ezin badio aurre egin zerbitzuaren ustiapenari zerbitzuarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, edo ustiapen hori arriskuan jartzen duen betebeharren ez-betetze larriren bat egiten badu (zerbitzua bertan behera uztea edo etetea edo zerbitzuak nabarmen gaizki funtzionatzea, edo are zerbitzua behar bezala emateari eragiten dioten kaudimengabezia kasuak). Kontratazio organoaren erabakia emakidadunari jakinaraziko zaio, eta, emakidadunak okerra zuzentzen ez badu horretarako emandako epearen barruan, emakida bahitu edo hartan esku hartuko da. Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aurreikusitako gainerako kasuetan ere emakida bahitzeko edo hartan esku hartzeko erabakia hartu ahalko da, legean bertan adierazitako ondorioekin.

2. Bahiketa edo esku hartzea egin ondoren, kontratazio organoari dagokio zerbitzua zuzenean ustiatzea eta ezarritako kontraprestazioa jasotzea, eta emakidadunaren langile eta material berberak erabili ahal izango ditu. Kontratazio organoak kontu-hartzaile bat edo batzuk izendatuko ditu enpresa emakidaduneko zuzendaritza taldekoen ordez jardun dezaten erabat zein partez. Bahitutako edo esku hartutako zerbitzua emakidadunaren kontura eta arriskura ustiatuko da, eta, bahiketa amaitutakoan, itzuli egingo zaio obraren ustiapena emakidadunari, gastu guztiak ordaindu ondotik (kontu hartzaileen zerbitzu sariak ere barnean direla) eta, kasuak hala eskatzen badu, ezarri zaizkion zigorren zenbatekoa geratzen den saldoarekin ordaindu ondotik.

3. Bahiketa edo esku-hartzea aldi baterako izango da; iraupen hori kontratazio organoak erabakiko du, baina ezingo da izan sei hilabetetik gorakoa, luzapenak ere barnean direla. Kontratazio organoak ofizioz edo emakidadunak eskatuta erabakiko du bahiketa edo esku hartzea bertan behera uztea, baldin eta egiaztatzen bada desagertu direla hori eragin duten arrazoiak eta emakidadunak justifikatzen badu zerbitzua normaltasunez ustiatzen jarraitzeko moduan dagoela. Bahiketarako edo esku hartzerako epea igaro ondotik, emakidadunak ez badu bermatzen bere gain hartzen dituela dagozkion betebehar guztiak, kontratazio organoak suntsiarazi egingo du emakida kontratua.

## 44.- Kontratuan atzera egitea

1.- Kontratistak eskubidea izango du kontratuan atzera egiteko, baldin eta kontratu horrek kostu izugarri handia eragiten badio inguruabar hauetakoren bat tarteko:

a) Emakida emaileaz beste administrazio batek xedapen orokor bat onestea kontratua egin ondoren.

b) Emakidadunak, legez edo kontratu bidez horretarako behartuta dagoelako, zerbitzuan edo haien ustiapenean haiek nabarmen hobetzen dituzten aurrerapen teknikoak aplikatu behar izatea; aurrerapen tekniko horiek merkatuan teknikaren egoeraren arabera kontratuaren formalizazioaren ondoren eskuragarri jarri direnak izan behar dute betiere.

2.- Hau izango da kontratua betetzeak kostu izugarri handia izatea emakidadunarentzat: administrazioen xedapenen eraginak edo aplikatu beharreko hobekuntza teknikoen diru zenbatekoak gutxienez ere emakidaren negozio zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 5eko urteko igoera garbi bat ekartzea kostuetan, emakida amaitzeko gelditzen den epe osorako. Igoeraren kalkulua egiteko, kasua bada, neurriak sor ditzakeen diru sarrera gehigarriak kenduko dira.

3.- Apartatu honetan ezarritakoaren ondorioz emakidadunak kontratuan atzera egiten badu, suntsiarazpenak ez du emango kalte ordainik jasotzeko eskubiderik alderdietako batentzat ere.

## 45.- Harrera eta bermealdia

### 45.1.- Harrera eta likidazioa

1.- Emakidadunak nahitaez eman beharko du zerbitzua kontratuan ezarritako epean, preskripzio teknikoekin eta administrazio klausulekin bat etorriz.

2.- Emakidadunak kontratua bete duela ulertuko da, kontratuaren baldintzen arabera eta Administrazioak nahi bezala betetzen duenean kontratuaren xedea osorik. Horretarako, kontratuaren arduradunak aurkeztutako dokumentazioa edo egindako prestazioa aztertuko ditu, eta, irizten badio bete direla preskripzio teknikoak eta administrazio klausulak, harrera egitea proposatuko du.

3.- Kontratuaren xedea amaitu eta hurrengo hilabetean jasoko da, egintza formalaren bidez.

Era berean, harrera partzialak egin ahal izango dira, modu independentean erabil daitezkeen kontratu zatiei loturik.

4.- Segidako traktuko kontratuen kasuan, kontratatutako prestazioa amaitzean edo kontratuaren epea amaitzean hartuko dira.

### 45.2.- Bermealdia

1.- Bermealdia ezaugarrien taulako **18. atalean** ezarritakoa izango da, edo, kasuaren arabera, adjudikaziodunak eskainitakoa.

2.- Epe horretan egindako lanetan egiaztatzen bada ezkutuko akatsak edo hutsak ageri direla, Administrazioak eskubidea izango du emakidadunari horiek zuzen ditzala erreklamatzeko.

3.- Jarduera hutseko kontratuak, ez bada aurreikusi bermealdirik, epea betetzeagatik azkenduko dira; hori, alabaina ez da izango eragozpen Administrazioak emakidadunaren erantzukizuna garbitzeko dituen prerrogatibari dagokionez, gerora hautemandako edozein ez-betetze gertatuz gero.

Emakidadunak eskubidea izango du kontratatutako prestazioa betetzeari buruz egiten zaizkion oharrei buruz entzun diezaioten.

4.- Bermealdia amaitu eta administrazioak ez badu jarri eragozpenik, emakidadunak ez du izango erantzukizunik egindako prestazioagatik, obra proiektuak egiteko kontratuen berezitasunen kalte gabe betiere.

### 45.3.- Bermea itzultzea.

Ezaugarrien taulako **18. atalean** adierazitako bermealdia igaro eta administrazioak eragozpenik jarri ez badu, emakidadunak ez du inolako erantzukizunik izango egindako zerbitzuagatik, eta itzuli edo ezereztu egingo da behin betiko bermea.

### 46.- Kontratua suntsiaraztea

1.- Kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira, Lurreko Garraiobideen Antolamenduaren Legearen 82.3 artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 294. artikuluetan ezarritakoez aparte, ez betetzea Sektore Publikoko Kontratuen Legean adierazitako funtsezko betebeharrak, **38.3** eta **38.4 klausuletan** adierazitakoak eta ezaugarri taularen **21. atalean** kontratuaren funtsezko betebehar gisa adierazitakoak.

Horretaz gainera, hauek izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoi bereziak:

A. Ez formalizatzea kontratua epe barruan, emakidadunari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.

B. Ez betetzea baldintza agiri honetan jasotako funtsezko kontratu betebeharrak.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211.2 artikuluaren arabera, kontratua suntsiarazteko arrazoi bat baino gehiago baldin badago eta ondorio desberdinak badituzte azkentzearen efektu ekonomikoei dagokienez, denboran lehenbizi agertutakoa hartu beharko da kontuan.

3.- Kontratazio organoak erabakiko du kontratua suntsiarazten den, Lurreko Garraiobideen Antolamenduaren Legearen 83. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 212.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta erregelamenduz ezarritako moduan izapidetutako prozedura baliatuko du horretarako.
Lurreko Garraiobideen Antolamenduaren Legearen 82. artikuluko 3. puntuko f) eta g) apartatuetan aurreikusitako kasuetan, Administrazioak erabaki dezake kontratua ez suntsiaraztea, baldin eta espedientean egiaztatzen bada hori interes orokorrerako kaltegarriagoa izan daitekeela kontratua mantentzea baino.

Hala ere, kasu horietan, kasuan kasuko zigorrak eta/edo zehapenak ezartzeko prozedurak abiaraziko ditu Administrazioak.

4.- Kontratua emakidadunaren ez-betetze kulpadunagatik suntsiarazten bada, bermea konfiskatuko zaio, eta, gainera, eragindako kalte galeren ordaina eman beharko dio Administrazioari, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duen neurrian. Kontratazio organoak erabaki arrazoitua hartuko du ordaindu beharreko kalte galerak zehazteko, aldez aurretik entzunaldia eginda, eta, beste faktore batzuen artean, horrek dakarren atzerapena eta Administrazioari eragiten dizkion gastu handiagoak kontuan hartuta.

5.- Suntsiarazteko arrazoiak aplikatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 212. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta, haren ondoreetarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 213. eta 295. artikuluetan xedatutakoa; kasuak hala eskatzen duenean, erregelamenduaren garapenean xedatutakoari ere jarraituko zaio.

6.- Arrazoi hauengatik ere suntsiarazi ahal izango da kontratua:

a) Kontratua gauzatzean emakidadunak kontratuari atxikitako langileei soldatak ez ordaintzeagatik, edo ez betetzeagatik langile horientzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak.

   Arrazoi horregatik kontratua suntsiaraztea erabakiko da, oro har, enpresa emakidaduneko langileen ordezkaritzak hala eskatzen badu; salbuespen izango dira soldatak ez

ordaintzeak eragindako langileak subrogazioa bidezko duten langileak badira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 130. artikuluaren arabera, eta enpresa emakidadunak zor dituen soldaten zenbatekoak kontratuaren esleipen prezioaren % 5 gainditzen duenean; kasu horretan, kontratua ofizioz suntsiaraztea erabaki ahal izango du zuzenean kontratazio organoak.

b) Baldintza agiri honen arabera, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko betebeharren ez-betetze oso astunak gertatzen direnean.

c) Kontratua hasieran esleitutako langile kopuruarekin gauzatu ezin izanagatik.

7.- Hala ere, ez-betetzeengatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5aren multiplora iristen badira, kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, beste zigor batzuk ezarrita.

## 47.- Zerbitzua itzultzea

1. Emakidaren epea amaitutakoan, zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiari itzuliko zaio.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak konpentsatu beharreko zerbitzuari atxikitako aktiboak Gipuzkoako Foru Aldundira itzuliko dira beti, aukeratutako eskuratze modalitatearen arabera dagozkien betebehar eta obligazioekin.

3. Itzulketa egin aurreko hiru hilabeteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak ondasunak hitzartutako baldintzetan entregatzeko xedapenak emango ditu.

4. Emakidadunak nahitaez lagundu beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari kontratu honen amaieran zerbitzua itzultzeko prozesuan. Prozesu horretan, zerbitzua beste emakidadun batek emateko trantsizio epe bat ezarri ahal izango da. Emakidadunak, orduan, “zerbitzua uzten duen emakidadunaren estatusa” eskuratuko du, eta emakidaren baldintza materialak eta operatiboak behar bezala transmititzeko ezartzen diren jarraibideak bete beharko ditu, kontratuaren amaieran zerbitzuaren jarraitutasuna bermatuz.

5. Ezingo dira enbargatu emakidari atxikitako ondasunak, artikulu honetan ezarritakoaren indarrez Gipuzkoako Foru Aldundiari itzuliko zaizkionak.

## 48.- Zehapen araubidea

1.- Kontratazio organoak, zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, jarraian adierazten diren ez-betetzeengatik eta adierzten diren zenbatekoetan, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoari jarraituz:

f) Guztizko epea edo epe partzialen bat ez betetzeagatik.

g) Prestazioa gaizki betetzeagatik, ez betetzeagatik edo akatsez betetzeagatik agiri honetan jasotako kontratua egikaritzeko beste edozein egikaritze baldintza berezi, hurrengo ataletan adierazitakoez bestelakoak direnak.

h) Eskaintzak balioesteko irizpide modura kontuan hartutako alderdietan eragina duen zerbait ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik.

i) Soldatak ez ordaintzeagatik edo ordainketa behin eta berriro atzeratzeagatik edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata baldintzen azpitiko baldintzak aplikatzeagatik, modu larri eta dolozkoan.

j) Azpikontrataziorako obligazioak, baldintzak eta bestelako beharkizunak urratzeagatik.

k) Lan Programa eta Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, horiek eskagarri direnean.

l) Ez betetzeagatik Foru sektore publikoko kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak txertatzen dituen urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren 30.2 artikuluan jasotako obligazioak.

2.- Zigorren zenbatekoak hauek dira::

a) a) letran barneratzen den arrazoia dela medio, SPKLren 193. artikuluko 3. atalean aurreikusitako zenbatekoa, baldin eta ezaugarrien taulako **23. atalean** beste zenbait ezartzen ez badira.

b) b), c) eta d) letretan jasotako arrazoiengatik, kontratuaren prezioaren % 4, non eta kontratazio organoak, arrazoi bidez, larri edo oso larri irizten ez dion ez-betetzeari, horrelakoetan % 7raino iritsi ahal izango baita larrien kasuan, eta % 10eraino oso larrienean. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.

c) e) letran jasotako arrazoiarengatik, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50eraino.

d) f) letran jasotako arrazoiarengatik, euro bat egunean kontratuko prezioko 5.000 euroko.

e) g) letran jasotako arrazoia oso ez-betetze larritzat hartuko da.

Zigor horiek, klausula honetako 1. ataleko a) letran aipatzen diren betebeharren urraketarako adierazitako salbuespenarekin, proportzionalak izan beharko dira ez-betetzearen larritasunarekiko eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo dira kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagokoak izan, BEZa aparte, eta guztien artean ere ezingo da kontratuaren prezioaren % 50a gainditu.

3.- Kontratuaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, hura behar bezala egikaritzeko aurreko atalean adierazitakoez aparteko zigorrak ezartzea beharrezkotzat jotzen bada, horiek ezaugarrien taulako **23. atalean** zehaztuko dira.

4.- Enpresa kontratista berandutze egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Entitate kontratatzaileak aurretik eskaera egitea.

5.- Bitartekoak baliatzeko konpromisoa, hizkuntzaren inguruko baldintzak edo beste edozein egikaritze baldintza berezi ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondoriozko zigorrak kontratazio organoak ez-betetzea egiaztatzen duen unean ezarriko dira.

6.- Eskaintzak balioesteko irizpide modura kontuan hartutako alderdietan eragina dutenak ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondoriozko zigorrak ezarriko dira, harreraren unean, kontratazio organoak ikusten duenean, kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio, azken horrek kontratua edo eskaintzan bere gain hartutako konpromisoren bat ez dituela egikaritu, betiere horiek garrantzitsuak izan badira adjudikazioari begira.

Bete ez diren konpromisoak adierazgarritzat joko dira, bete gabeko irizpidean kontratistak eskuratutako puntuazioaren % 50 deskontatu ostean, bere eskaintza ongien balioetsia ez bada.

7.- Gaizki betetzearen ondoriozko zigorrak ezarriko dira, kontratistak akats horiek konpontzeko legez duen betebeharraren gorabehera.

8.- Zigorra ezartzeak ez du kalte eta galerengatiko kalte-ordaina salbuesten.

9.- Berandutzearen ondoriozko zigorren zenbatekoa faktura edo ziurtapenetatik eta, aipatu dokumentuetatik kentzea ezinezkoa denean, bermetik kenduko da. Zigor horiek bermea baliatuz ordaintzen direnean, kontratista behartuta geratuko da berme hori birjarri edo areagotzera, egikaritzen denetik hamabost egun naturaleko epean. Hala egin ezean, kontratatua eteteko nahiko arrazoi dagoela ulertuko da.

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

# I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

## I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA

1. **Kontratazio prozeduraren izapideetarako lizitazio elektronikoaren sistema erabiltzeko baldintzak**

   **1.1. Administrazio betekizunak:**

   a) Ziurtagiri digital bat edukitzea, lizitazio elektronikoaren sisteman identifikatzeko eta sinatzeko bitarteko gisa erabiltzeko. Lizitazio elektronikoaren sisteman sartzeko atariak une oro erakutsiko du baimendutako ziurtagiri elektronikoen zerrenda eguneratua.

   b) Enpresak alta emanda egon behar du erregistro hauetakoren batean: Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan —dela EAEkoan, dela estatukoan (ROLECE)—, edo KPE-CPE lizitatzaileen barne erregistroan.

   **1.2. Baldintza teknikoak:**

   Esteka honetan dago eskuragarri Lizitazio elektronikoa egiteko eskakizun teknikoei buruzko informazioa: https://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/webkpe00-kpelicel/eu/

2. **Lizitazio elektronikoko sistemarako sarbidea:**
   Sistema erabiltzeko, atari honetan sartu behar da:
   https://www.contratacion.euskadi.eus/lizitazio-elektronikorako-sarbidea-kontratazioa-plataforman-enpresak/webkpe00-kpelicel/eu/

**Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua:**

**945 016 298**

## II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpenak eta komunikazioak bide elektronikoz egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabiliko da, https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera helbidetik sartuta. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, enpresak bidalketaren abisua jasoko du **I. eranskin** honen **gehigarrian** horretarako eman duen helbide elektronikoan.

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

# I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.-JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN-IFZ**

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

* *Zenbait enpresak proposamen bateratua aurkezten badute, egokitu egin behar da eredua, proposameneko enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.*

## ADIERAZTEN DU(TE)

Kontratua esleitzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioetarako (espedientearen izena eta kodea):

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|
| Arantzazuko aterpetxea erabiltzea eta kudeatzea | GPS2026/02 |

Hauek dira jakinarazpenak eta komunikazioak elektronikoki egiteko datuak[1]:

**JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK**

**Kalea/plaza/etorbidea/...** **Zk.** **Pisua** **Atea**

**Udalerria** **PK** **Probintzia**

**Telefonoa** **Mugikorra**

**Abisuetarako helbide elektronikoa:**

**Hartzailea:**

**Jakinarazpena/komunikazioa jasotzeko aukeratutako** Euskara ☐ Gaztelania ☐

**JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO DATUAK** [2]

[1] *Enpresa batek baino gehiagok batera aurkezten badute eskaintza edo parte hartzeko eskaera, helbide bakarra aurkeztu beharko dute jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako.*

[2] *Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, kide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, ekonomia-jardueren gaineko zergaren datuak eskuratzeko baimen horri buruzkoa.*

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

BAI ☐ / EZ ☐ (*aukera markatu*)

**BAIMENA EMATEN DIOT** Gipuzkoako Foru Aldundiari prozedura honetan, bitarteko elektronikoen bidez, eska ditzan kasuan kasuko ogasunek Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruz eman beharreko ziurtagiriak.

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
|---|---|
| | |

## II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) BETETZEKO JARRAIBIDEAK

**1.- Lizitatzaileak Europako Kontratazio Agiri Bakarra aurkezteak aldez aurreko froga gisa balioko du, egiaztatzeko betetzen dituela lizitazio prozedura honetan parte hartzeko baldintza agiri honetan zehaztutako ALDEZ AURREKO BALDINTZAK.**

Lizitatzaileek Europako Kontratazio Agiri Bakarra aurkeztu beharko dute —hau da, enpresen finantza egoerari, gaitasunei eta egokitasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena— kontratazio publikoko prozedura batean parte hartzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140. artikuluarekin eta Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Exekuzio Erregelamenduarekin bat etorriz (erregelamendu horrek ezartzen ditu haren formulario normalizatua eta hura betetzeko jarraibideak).

Kontratazio organoak baliatu ahalko du LEHENENGO artxibo elektronikoan aldez aurretik aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko ahalmena, eta, horretarako, dagozkion egiaztagiri dokumentalak eskatuko ditu, 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, lizitatzaileak Europako Kontratazio Agiri Bakarra aurkezteak berekin dakar harekin ordezten dituen egiaztagiriak aurkezteko konpromisoa hartzea, kontratua esleitzeko proposamena haren aldekoa bada, **33.2 klausulan** aurreikusitakoaren arabera.

**2.- Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatua.**

Lizitatzaileek helbide honetan eskura dezakete Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatua: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es.

**3.- Jarraibideak:**

Agirian adierazten diren baldintzak lizitazio epearen azken egunean bete behar dira, kontratatzeko debekuak izan ezik, horiek gutxienez kontratua formalizatu arte jarraitu behar baitute; Administrazioak prozeduraren edozein unetan egin ahalko ditu egiaztapenak.

Horretarako nahikoa botere duenak sinatu behar du adierazpena.

Kontratuaren xedea **sortatan banatzea** aurreikusten denean, kaudimen ekonomiko eta finantzarioko edo gaitasun tekniko eta profesionaleko betekizunak aldatzen badira sorta batetik bestera, Europako Kontratazio Agiri Bakarra aurkeztuko da kaudimen baldintza berberak aplikatzen zaizkion sorta edo sorta multzo bakoitzeko.

**Eskatutako kaudimena edo baliabideen atxikipena lizitatzaileaz kanpoko bitartekoekin betetzen bada**, lizitatzaileak Europako Kontratazio Agiri Bakarra aurkeztu beharko du kontratua gauzatzeari atxikitako bitarteko bakoitzeko.

Enpresa batek baino gehiagok **proposamen bateratua** aurkezten badute, haietako bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatu bana aurkeztu beharko dute. Europako Kontratazio Agiri Bakarraren inprimaki normalizatuez eta aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaz gainera, edo behin-behineko bermea egiaztatzen duen dokumentuaz aparte, halakorik denean, LEHENENGO artxibo elektronikoan lizitatzaileek enpresa talde bateko kide diren ala ez adierazten duten adierazpena sartu beharko da, agiri honen **V. eranskineko** ereduaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **inskribatuta dauden enpresek** ez dituzte eman beharko dagoeneko modu eguneratuan inskribatuta dauzkaten datuak, betiere Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuan hori adierazten bada. Nolanahi ere, lizitatzaileak ziurtatu behar du zein datu dauden benetan inskribatuta eta eguneratuta eta zein ez. Eskatutako datu edo informazioren

bat aipatutako lizitatzaileen erregistroetan agertzen ez bada edo ez badago eguneratuta erregistro horietan, formularioa betez aurkeztu beharko da.

Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuaren erabilerari dagokionez, **lizitatzaileek dokumentu hauek kontsultatu ahal izango dituzte**:

- 2016/7 (EB) Erregelamendua, web orri honetan eskuragarri:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

- Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, hemen eskuragarri:

https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2016-3392

**4.- Prozedura honetarako formulario berezitua duen XML fitxategia kontratatzailearen profilean dago.**

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

## III. ERANSKINA.- PERTSONA JURIDIKO BAKARRA ERATZEKO KONPROMISO EREDUA, ZENBAIT ENPRESAK PROPOSAMENA ELKARREKIN EGINZ GERO

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN-IFZ**

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN-IFZ**

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN-IFZ**

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

***** *Pertsona juridikoa osatuko duten enpresen ordezkari guztiei buruzko datuak gehitzeko eredua egokitzea, adjudikaziodun izanez gero.*

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|
| Arantzazuko aterpetxea erabiltzea eta kudeatzea | GPS2026/02 |

### ADIERAZTEN DUTE

**1.** Konpromisoa hartzen dutela Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen 43.1.b) artikuluan eta haren erregelamenduaren 36. artikuluan adierazitako eskakizunak beteko dituen pertsona juridiko bat eratzeko, erreferentziako kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, partaidetza portzentaje honekin:

| Enpresaren izena | % |
|---|---|
| | |
| | |

| | |
|---|---|
| | |

**2.** Sozietate horren helburu sozialean jasoko da prozedura honen xede den emakida betearaztea.

**3.** Beren gain hartzen dutela eskaintza aurkeztean eta kontratua betetzean dituzten eginbeharrak betetzeko erantzukizun solidarioa.

**4.** _____ jauna/andrea izendatzen dutela elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, eta hark izango duela nahikoa ahalorde kontratuak sorraraziko dituen eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko, kontratua azkendu arte:

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak | |

**Lekua eta data:**

| |
|---|
| *Enpresaren izena*<br>*sinadura* |
| *Enpresaren izena*<br>*sinadura* |
| *Ahaldunaren izena*<br>*sinadura* |

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

# IV. ERANSKINA- BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA ADIERAZTEKO EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|
| Arantzazuko aterpetxea erabiltzea eta kudeatzea | GPS2026/02 |

**ADIERAZTEN DU**

Bere gain hartzen duela baliabide hauek atxikitzeko konpromisoa, aipatutako kontratua gauzatzeko:

[X] **Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:**

Lanaren esleipendunak planteatutako lanak lortzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak aurkeztu beharko ditu, eta gutxienez honako hauek esleitu beharko dizkio kontratua gauzatzeari:

- Sukaldari bat.
- Aterpetxea zaintzeko beste pertsona bat

[X] **Aterpetxeko jendaurreko arretara atxikitako langileek bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) komunikazio arina bermatzeko beharrezko hizkuntza-gaitasuna dutela.**

Halaber, hizkuntza-gaitasun hori honako bide hauetako baten bidez egiaztatzen dela adierazten dut (dagokiona markatu):

☐ Titulazio ofiziala, gutxienez PL1 hizkuntza-eskakizunaren baliokidea dena.
☐ Enpresaren erantzukizunpeko adierazpena, Fundazioak egingo duen elkarrizketa bidez baliozkotzea onartuz, erabiltzailearen arretari buruzko kasu praktikoetan oinarrituta.
☐ Esperientziaren ziurtagiria, jendaurreko arretan bi hizkuntzen erabilera ohikoa dela egiaztatzen duena.

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
|---|---|
| | |

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

## V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|
| Arantzazuko aterpetxea erabiltzea eta kudeatzea | GPS2026/02 |

**ADIERAZTEN DU**

Ordezkatzen duen enpresa:

☐ Ageri dela Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean.

☐ EZ dela ageri Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasu batean ere.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ da aurkezten kontratua esleitzeko prozedurara talde bereko enpresekin edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako kasu alternatiboetako batean dauden enpresekin, betiere horiek banakako proposamenak aurkezten badituzte.

☐ Aurkezten da talde berekoak diren edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako kasu alternatiboren bat gertatzen den enpresekin kontratua esleitzeko prozedurara, betiere kontuan harturik horiek banakako proposamenak aurkezten dituztela. Ondoren zehazten dira, hain justu, proposamenok:

| IFZ/IFK | Izen soziala |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |

* Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua: “Sozietate talde bateko sozietate nagusi orok urteko kontu bateratuak eta kudeaketa txostena egin beharko ditu, atal honetan aurreikusitako moduan”.

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
|---|---|
| | |

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

## VI. ERANSKINA.- KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA ERAKUNDE ZUZENTASUNAREN ESPARRUA BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|
| Arantzazuko aterpetxea erabiltzea eta kudeatzea | GPS2026/02 |

**ADIERAZTEN DU**

**Lehenengoa:** Konpromisoa hartzen duela baldintza guztietan betetzeko Gipuzkoako Foru Administrazioaren **KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKAGARRI ZAION JOKABIDE KODEA ETA ERAKUNDE ZUZENTASUNAREN ESPARRUA**, zeina Foru Diputatuen Kontseiluak 2017ko irailaren 5eko bileran onetsi baitzuen. Hala, helbide elektroniko honetan dago lizitatzaileen eskura:

https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/923643/Kontratazio_kodea-es.pdf/e014801b-3e70-fd79-8ac2-d63ea19aa374

**Bigarrena:** Ez duela inolako interes gatazkarik eta ez duela horren pareko harremanik, ez beste lizitatzaile batzuekin, ez proiektuan interesa duten beste alderdi batzuekin. Kontratua gauzatzeko aldian egoera hori gertatzen bada, enpresak bere gain hartuko du botere esleitzaileari egoera horren berri emateko betebeharra.

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
|---|---|
| | |

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

## VI. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTZEN DIREN DOKUMENTU ETA DATUEN AITORPEN OSAGARRIAREN EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|
| Arantzazuko aterpetxea erabiltzea eta kudeatzea | GPS2026/02 |

**ADIERAZTEN DU**

Sekretu tekniko edo komertzialekin duten loturagatik, konfidentzialtzat jotzen dituela eskaintzaren honako **dokumentu, informazio eta alderdi** hauek[3]:

1.
2.
3.
……..…

Arrazoi hauengatik direla konfidentzialak:

1.
2.
3.
……..…

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
|---|---|
| | |

[3] Konfidentzialtasun deklarazioak ezin du barnean hartu enpresak aurkeztu duen dokumentazio osoa, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzeko dokumentazio osoa ere. Kasu horretan edo konfidentzialtasun adierazpena ez denean ondo zedarritzen, kontratazio organoak erabakiko du zer datu eta/edo dokumentu diren konfidentzialtzat hartzeko modukoak. Enpresak ez badu adierazi berariaz konfidentzialtzat inolako datu eta/edo dokumenturik, ulertuko da emandako datu eta/edo dokumentuetako bat ere ez dela konfidentziala. Halaber, eskaintzak aurkeztu ostean ezin izango da adierazi datu batzuk konfidentzialak direla, datu horiek aurkeztean adierazi ez bazen.

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

## VIII. ERANSKINA. - ABAL EREDUA

**KREDITU ERAKUNDEAREN EDO ELKARREN BERMERAKO SOZIETATEAREN DATUAK**

**Sozietatearen izena** **IFZ**

**Jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako helbidea:**

**Kalea/plaza/etorbidea/...** **Zk.** **Pisua** **Atea**

**Udalerria** **PK** **Probintzia**

**AHALDUNA(K)**

**Izen-abizenak** **IFZ**

Goian adierazitako erakundeak —eta haren izenean eta haren ordezkari gisa, egintza honetan behartzeko ahalorde nahikoa duen pertsonak— abal solidarioa eratzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean agiri honen behealdean aipatzen den ahalorde askiespenetik ondorioztatzen denez:

**ABALATUTAKO PERTSONAREN EDO ERAKUNDEAREN DATUAK**

**Izen-abizenak/Sozietatearen izena** **IFK / IFZ**

**Berme mota**
- ☐ **Behin-behinekoa** (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 106. artikulua)
- ☐ **Behin betikoa** [Lurreko Garraiobideen Antolamenduari buruzko Legearen

**Kontratuaren xedea edo abalatuak bere gain hartutako betebeharra**

**Kontratazio organoa**

**Abalaren zenbatekoa (letraz eta zifraz)**

Erakunde abal emaileak bere erantzukizunpean deklaratzen du betetzen dituela Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 56.2 artikuluak zehaztutako betekizunak. Abal hori modu solidarioan ematen da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio onurari berariaz uko eginez eta kontratazio organoaren lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoarekin, administrazio publikoen kontratuei buruzko legerian, hura garatzeko arauetan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauan aurreikusitako baldintzen arabera.

Abal hori indarrean egongo da harik eta kontratazio organoak edo haren izenean legez horretarako gaituta dagoenak hura ezerezteko edo itzultzeko baimena eman arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta legeria osagarrian ezarritakoaren arabera.

**Lekua eta data:**
**Erakundearen sozietate**
**Ahaldunen sinadura:**

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

# IX. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ETA FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUEN EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|
| Arantzazuko aterpetxea erabiltzea eta kudeatzea | GPS2026/02 |

Aipatutako kontratazio espedientearekin lotuta eskatzen diren baldintzen eta betekizunen jakitun, honako prezio hauek proposatzen ditu, eta, kasuaren arabera, formulen bidez ebalua daitezkeen gainerako elementuen eskaintzak.

**Jendearen arretarako egutegia: (50 puntu)**

Urteko egutegia: 10 puntu.
Urteko egutegi proposamena. Urtean 9 hilabete izango dira eskatzen den gutxienekoa:

- 10 hilabete: 3,33 puntu BAI / EZ
- 11 hilabete: 6,66 puntu BAI / EZ
- 12 hilabete: 10 puntu BAI / EZ

Asteko egutegia: 40 puntu.

Asteko egutegi proposamena, asteazkenetik igandera eskatzen den gutxienekoa izanik.

- Asteartetik igandera: 20 puntu. BAI / EZ
- Astelehenetik igandera: 40 puntu BAI / EZ

**2.2 Irizpide sozialak (emakumeen eta gizonen berdintasuna) (10 puntu)**

Lan-subrogazioaren mende ez dagoen giza baliabideen atxikipenean proposatutako pertsona (sukaldaria) emakumea da. BAI / EZ

**2.3 Ingurumen-irizpideak (10 puntu)**

Honako neurri hauek hartzeko konpromisoa:

a) Komuneko papera klororik gabe (TCF) erostea (2 puntu). BAI / EZ
b) Kafea nekazaritza ekologikotik etorriko da, 834/2007 (EE) Erregelamenduaren edo ondorengo bertsioen arabera (4 puntu). BAI / EZ
**c)** Erabilitako baxera, beirateria eta mahai-tresnak berrerabilgarriak izango dira (4 puntu). BAI / EZ

**Kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa:** (Adierazi Hitzarmen Kolektiboa)

**Lekua eta data:**

| |
|---|
| *Enpresaren izena* *sinadura* |

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

## X. ERANSKINA.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK ETA IZAERA SOZIALEKO EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK EBALUATZEKO SISTEMAREN PROPOSAMENA

Enpresa emakidaduna beharturik dago bere proposamenean ezarritako adjudikazio irizpideen eragina ebaluatzera, bai eta aplikatutako izaera sozialeko egikaritze baldintza bereziak ebaluatzera ere, eredu honi jarraikiz:

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norbere izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren izen soziala:**

**Ordezkatutako enpresaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|
| Arantzazuko aterpetxea erabiltzea eta kudeatzea | GPS2026/02 |

**ADIERAZTEN DU** enpresa horrek, kontratua gauzatzean,

1. __ emakume baliatu dituela kontratua gauzatzeko, hau da, langile guztien % __.

2. Diagnostiko bat egin duela enpresan edo prestazioaren onuradunen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egoerari buruz, eta, hortik abiatuta, __ berdintasun ekintza diseinatu eta aplikatu direla (adierazi kopurua), zeinek __ pertsonari egin baitiote mesede.

3. Berdintasunaren arloko __ prestakuntza ordu diseinatu eta eman dituela, eta, haietan, __ pertsonak parte hartu dutela.

4. Enpresako plantillako pertsona bat izendatu edo teknikari bat kontratatu dela berdintasunaren arloko arduradun gisa.

5. Protokolo bat edo neurri espezifikoak onetsi direla laneko sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzeko edo aurre egiteko; haiek diseinatzen __ pertsonak parte hartu dutela eta, orotara, __ pertsonari egiten diotela mesede.

6. Protokolo espezifiko bat onetsi dela enpresan generoa errespetatzen duen hizkuntza erabiltzeko, eta hura diseinatzen __ pertsonak parte hartu dutela eta orotara __ pertsonari jakinarazi zaiola haren berri.

7. Kontziliazio neurriak diseinatu eta aplikatu direla, eta __ pertsona izan direla ekintza horien onuradun —horietatik __ emakumeak—. Ekintzak ondoren adierazitako hauek izan dira (adierazi zein dagokion: emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasuna sustatzea; bereziki, baliabide propioak, pribatuak edo soziokomunitarioak izatea, adingabeei eta mendekoei arreta ematen laguntzeko, hala nola zerbitzu txekeak, jantokiak, haurtzaindegiak, eguneko zentroak edo ludotekak; edo are lanaldi hobekuntzak, eszedentziak, lizentziak edo baimenak, ordutegi malgutasuna, telelana, edo zerbitzuak egokitzea edo berriro esleitzea).

8. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako neurri espezifikoak jasotzen dituen enpresa hitzarmen bat aplikatu da. Hitzarmen horretan jasotako __ neurri hartu dira

(adierazi zenbat ekintza), eta kontratuaren betearazpena aplikatzeak __ pertsonari egin dio mesede.

9. Bada emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ziurtagiri edo egiaztapen bat, eta horren ekintzak, kontratua gauzatzeko aplikatuak, __ pertsonarentzat izan dira mesedegarri.

10. Plantillan 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, errespetatu eta bete da % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen % 2ko kontratazio kuota, eta, horrenbestez, enpresako plantilla osoa __ pertsonakoa izanik, __ pertsona daude % 33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa dutenak.

11. Plantilla osoaren kasuan errespetatu da sektorerako indarrean dagoen sektore eta lurralde hitzarmena.

12. Kontratua gauzatzean, hizkuntzaren erabilera ez-sexista baliatu da, saihestu egin dira emakumeen irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexistak, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero rol eta identitateen pluraltasun balioak islatzen dituen irudia sustatu da. Irizpide horiekin egindako materialen guztizkoa (publizitatea, kartelak, liburuxkak, irudiak, dokumentuak eta abar) __ da orotara (adierazi zenbakia), eta horren guztiaren inpaktuak __ pertsonari eragitea aurreikusten da (adierazi pertsona kopurua).

**Lekua eta data:**

| |
|---|
| *Enpresaren izena* <br> *sinadura* |